


Herririk Herri |3|

Zuhatzola parkeko jolaslekua prest dago, 1-12 urtekoentzat, Durangon

Ekonomia |10|

Europako enpresetan praktikak egiteko ekimena, Behargintzatik



Berbaz |9|

Vicente Fernández : "Ikastetxeekin drogen prebentzinoa lantzen gabilz"

Ura Betzuenen kutsatu da, azterketek argitu dabenez

> Asteon berriztarren erdiak zergaitik ez dauen ur edangarririk izan azaldu dabe

> Asteburuan normaltasunera itzultzea itxaroten dau Berrizko Udalak

4

Apalantza eta Vilariño favorito, Balcón de Bizkaian

Durangaldea• Bihar korrituko den Balcón de Bizkaia rallya irabazteko favorito nagusiak Ramon Apalantza (Mitsubishi WRC) eta Ander Vilariño (Subaru Impreza WRC) dira. Iñigo Alustizaren BMW M3a be ez da aparte ibiliko. Goizean Munitetarako igoera egingo dabe; arratsaldean, Elorriotik Elgetarako tramuan lehiatuko dira.

23

Intxaurreko zazpi juntakide Audientzia Nazionalera

Durango• Intxaurre kultur elkar-teko zazpi juntakide azaroaren 13an Audientzia Nazonalean deklaratzera deituta dagoz. Guardia Zibilak 2007an egindako mietetan harira, "talde terroristako kide" izatea leporatzen deutsee auzipetuei. Asteon emondako prentsaurrekoan adierazo dabenez, azaroaren 12an elkartasuna adierazteko eta "eskubide zibil eta politikoen aldeko" elkarretaratzea deitu dabe. Intxaurrek 20 urtetik gora daroazela "herri eta herriarentzat lan egiten" eta "traba guztien gainetik Durangoko ezkertiar eta abertzaleen bilgune" izaten jarraituko dauela azaldu dabe.

2



Kepa Aginako

•Abadiño

Euskara Planaren helburuak zehazten dihardue

6

•Elorrio

Argiteria publikoaren azterketa egin gura dau Udalak

7

•Otxandio

Gaztetxeko zerbitzuak herritarren eskura jarri gura ditue

3

•Iurreta

Saneamendua barriztu guran Mallabiena-Arandian

8



KOART

Sukaldeak
Bainugelak
Horma-armairuak



Tel. / Faxa: 94 682 68 79

Eitua industrialdea, 9 - 6 behea • 48240 BERRIZ

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Intxaurreko zazpi juntakide deitu ditue Audientzia Nazionalera

Azaroaren 13an deklaratu behar dabe, 2007an Guardia Zibilak egoitzan egindako miaketen harira

Intxaurre kultur elkarteko zazpi juntakide Audientzia Nazionalera deitu ditue deklaratzera, azaroaren 13rako. 2007an Guardia Zibilak Intxaurreko egoitzan egindako miaketaren harira deitu ditue, azaldu lez, "talde terroristako kide" izatea leporatuta. Auziperatuoi elkartasuna agertzeko eta "eskubide zibil eta politikoen defentsan" hilaren 12an egingo den elkarretaratzean parte hartzea deitu dabe; Intxaurre aurrean, 19:30ean.

"Demokrazian oinarritzko eskubide direnak, Euskal Herrian, behin eta berriro zapaltzen" direla salatu eta "askatasun demokratikoen defentsan borrokatzeko eta

Azaroaren 12an, 19:30ean, elkartasuna agertzeko eta "eskubide zibil eta politikoen aldeko" elkarretaratzea

Intxaurrek 20 urtetik gora daroaz "herritik eta herriarentzat lanean"

mobilizatzeko" dei egin dabe Amnistiaren Aldeko Mugimendukoek. "Ezinbesteko pausotzat" jo dabe Auzitegi Nazionala "deusezte", horretara "kanpo injerentziarik bako prozesu demokratikoa eraikitzeko". Espainiak, "tribunal faxista" horregaz, "salbuespen egoera itogarria" jarri dauela dinoe.

"Euskal Herria oinarri daukan edozein ekimen kultural, politiko edo sozial zapaldu" gura dau Espainiar Estatu "faxistak", eta auzitegi eta lege "bereziak" sortu ditu, "eskubide zibil eta politikoen urraketa legezko bihurtuz".

"Errepresinoaren judizializazioa" dela-eta, hainbat durangar

Auzitegi Nazionalen izan direla gogoratu dabe: "Mobilizazioetan parte hartzea, ekitaldi bat antolatzea edo gure ideiei atxikitutako jardura politikoa epaitu ditue". Intxaurrek 20 urtetik gora daroaz "herritik eta herriarentzat lanean, eta traba guztien gainetik Durangoko ezkertiar eta abertzaleon bilgune izaten jarraituko dau". ■ A.B.

"Demokrazian oinarritzko eskubide direnak, Euskal Herrian behin eta berriro zapaltzen ditue"

Landakok 200 txakur arrazatik gora batuko ditu

Bilboko Nazinoarteko 43. Txakur Erakusketa hartuko dau Landako Guneak domekan, hainbat herrialdeko 850 bat txakur batuz. Bizkaiko Txakur Elkarateak eraturako erakusketa 09:30ean zabalduko da, 200 txakur arrazatik gora batuz, tartean, Txinako ile bakoa, edo Chihuahua eta irlandar otso-ehiztaria. Bost euro ordainduko dabe helduek; umeek hiru.

Erakusketa 09:30ean zabalduko dabe; helduek bost euro ordaindu beharko dabe eta umeek hiru euro

Euskal Herritik ez eze, Frantzia, Portugal, Italia, Belgika, Ingalaterra, Alemania, Holanda, Danimarka, Errusia eta Espainiatik etorritako txakurrak sexu, mota eta adinaren arabera epaituko ditu nazinoarteko izen handiko epaimahaiak, hainbat kategoria sari-tuz: txakurkume, beterano eta txakur helduen sailetan, taldeko onenak eta erakusketako onena, adibidez. Nazinoarteko Txakur Federazioaren Nazinoarteko Txapelketan eta Espainiakoa parte hartuko dabe txakurrok.

Finalagaz batera, 16:00etan hasiko dira ebazpenekin Errusia, Portugal, Hungaria eta Herbehereetako epaileek, arrazagazko txakurraren "perfekzioa" epaituz. Oinarritzko zainketetatik berezienera ezagutzeko aukera eta sektoreko barrikuntza nagusien erakusketa be egongo dira. ■ A.B.

Aurten hasiko ditue San Fausto auzoan zentro zibikoa eraikitze beharrak

Behin betiko onartu dau udalbatzarrak lanak aurrera erodateko hiri-antolamenduko plan berezia

Urtea amaitu aurretik hasiko ditue San Fauston hiri-birgaitze osoaren egitasmoko lanak. Kirol kantxa batuko dauen zentro zibikoa eraikiko dabe (2.000 m²), eta azpian 101 aparkaleku. 2011 aurretik amaituko dabe; 3.400 m²-ko berdegunea be jaso dabe. Egitasmoa behin betiko onartu dabe —denek egin

Kirol kantxa batuko dau zentro zibikoak (2.000 m²); egitasmok 3.400 m²-ko berdegunea be jasotzen dau

dabe bat, Aralarrek izan ezik; abstenitu egin da— eta lanak urgentziaz emon gura ditue.

Bide luzea daroa horrek. Izan be, Ideia Lehiaketaren irabazleak (2005) jabetza pribatuko baserria jasotzean, EAJk Arau Subsidiarioen aldaketa egin gura izan eban 2007an, baina beharrezko gehien-

go absolutua ez eban lortu, eta hori erosteko negoziaketak hasi ziteuen jabeekin; urteotan ez da ezer lotu. Hiri-antolamenduko plan bereziari heldu eutsien urte hasieran, prezioa igotzerik ez zegoela-eta; ez eben hartu Hirigintza Batzordean adostuta eskaintako gitxienez emon beharreko balioa be.

650.000 euro erabilgai

Izartu bitartez (2004) 955.000 euro lortu arren, urte biko luzapena eskatu eban Udalak igaz, eta oinarritzko obra-egitasmoan 300.000 euro erabili arren, 2010erako 650.000 bat euro dagoz erabilgai.

Udal talde guztiek emon dabe aldeko botoa, Aralarrek izan ezik; abstenitu egin da

Auzoarentzat daukan garrantzia arrazoitu dabe EB-Berdeek; Talde Mistokoek be bai, azpiegiturei buruz "hausnartu" behar dela esan arren. Hausnarketa "sakona" eskatu dau Aralarrek be, aitatuz arau aldaketarik ez zela behar erakutsi dela. Kirolari lekua egiten deusan zentro zibikoa dela dino PPK, eta PSE-EEK laguntzok ezin direla galdu: "Errudun egin gaitue, baina igaz be bide honetan jardunda ulergatxa da atzerapena". EAJk "akordioa lortu eta dena era arrazoi-tuan antolatu" gura izan dau, "azkenera arte negoziatuz". ■ A.B.

"Jasangarri" diren proiektuak sustatzeko dirua

Espainiako Gobernuak bideraturako Tokiko Enplegu eta Jasangarritasunerako Fondotik hiru milioi inguru euro jasoko ditu Udalak, eta egitasmoak aurkezteko hiru hileko epea dauka. Ikuspuntu ekonomiko, ingurumeneko eta sozialetik "jasangarriak" diren egitasmoak bultzatzera bideratuko da hori. Halan be, diru-laguntza-ren %20 ohiko gastuetara bideratzeko aukera be badauka Udalak.

Diru-laguntza jasotzeko lan barriak izan behar dira eta berehala gauzatzekoak; urtebetean hasi eta amaitzekoak. Urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean 5.000 milioi euroko fondoa. ■ A.B.

Laguntza jasotzeko, herri-lan barriak izan behar dira eta berehala gauzatzekoak



Eskola eta kantxa dagoen lekuan eraikiko dabe zentro zibikoa, San Fausto auzoan. A. Basauri

PSE-EEK aurrekontua “ahalbidetuko” dau hiru arlo landuz gero

Gizarte politika, enpresa politika eta babesekoak aitatu ditue, “erantzukizun politikoa” arrazoituz

“Erantzukizun politikoagaitik” 2010erako aurrekontua “ahalbidetuko” prest dago PSE-EE. Beti be, hiru ildo nagusitan jardunez gero: gizarte politika aktiboa, enplegu politika eta babesekoak. Kultur etxearen premina be nabarmendu dau Pilar Riosek. Egoera “konplikatu” dela eta, udalen tresna garrantzitsuen aurrera ateratzeko Gobernu Taldearen “ezgaitasunagaz” PSE-EE “inoiz baino arduratuago” ei dago: “Zerga eta tasak izoztea da proposamena, eta Udalakutxatik jagokuna nabarmen jaitisiko da. Alarmak piztu dira”.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak zirriborroa urriaren 15a aurretik aurkezteko dinola eta oraindino ez dela egin dino PSE-EEK. “Itzikeria itzela” leporatuta, 2003tik 70 bat babeseko etxe egin

direla dino; “barregarria, 3.000 eskari egonda”. Udalak “enplegua sortzeko motore” izan behar daue-la be badino: “1.474 lanbako dagoz (2007tik %130 gehiago) eta bestaldera begiratzea gurago dau EAJk. Ez da zilegi ezerezean geratuko diren neurriak aurkeztea”.

Laguntza sozialetik harata-goko neurriak eskatu ditu PSE-EEK, eta 3. adinekoentzat pisu tutela-tuak (Uribarri Egoitzan) proposatu: “aisi-zerbitzu eta jantokiagaz”. Protokoloagaz lotuta, alkateari “beragoratzeko” dirua “xahutze-ri” iztea “erregutu” deusie. ■ A.B.

“Itzikeria itzela” egotzi eta 2003tik 70 bat babeseko etxe egin ditueela dino

Uriko jolasgunerik handiena erabiltzeko prest dago jadanik

Zuhatzola parkean atondu dabe, 1-12 urte bitarteko neska-mutilentzat



Udalak 147.357 euro inbertitu ditu 756 metro koadro hartzen dituen jolasgunea egiteko. A.Basauri

Erabiltzeko prest dago urte batetik 12 urterako neska-mutilendako Zuhatzola parkeko jolasgunea (756m²).

Halan be, alboan den futbito zelaiko erabiltzaileendako beizango den iturria falta da, mugikorta-

suna murriztuta daukien umeentzat gailu bat ez eze: “Arazo tekniko batzuk somatu doguz, eta gaia irisgarritasun lan-taldera eroango dogu aztertzeko”, Aitziber Irigoras alkatearen berbatan. Udalak 147.357 euro inbertitu ditu.

Mugikortasun murriztukoentzat edo ume-gurditxoak daroenentzat bigarren bidea be atonduko da jolasgunera sartzeko. Ilobagaz zegoen Juan Jose Mendiolak komunak bota ditu faltan. Udalak ez dau halakorik aurreikusi. ■ A.B.

Andra Mariko elizpea bete eban ‘Dantzaroa...’-k

Andra Mariko elizpea txiki geratu zen Durangaldeko makina bat dantzari ez eze, horreen ikuskizuna ikustera hurreratutako herritarrek be batzeko. Gerediagia elkarteak antolatuta ‘Dantzaroa...’ folklore jaialdia eskaini eben bertaratu ziren adin guztietarako eskualdeko dantzari eta txistulariek. *Dantzari dantza*, Garaiko *Gernikako Arbola dantza*, *Gorularien estampa* eta *Arkundantza*, *Domingillo dantza*, Durangoko *Platillu Soinu* eta Garaiko eta Iurretako nesken *Soka dantza* eskaini zitueen Andra Mariko elizpean.

Ikuskizuna amaituta, Zarate-Elexpe Fundazioaren eta Eusko Labelaren eskutik euskal baserriko oilaskoa dastatzeko aukera izan eben jaialdian parte hartu eben guztiek. Datozen urteei begira, iraupen luzeagoko jaialdia gura dau Gerediagia elkarteak. ■ A.B.



Andra Mariko elizpea izan eben aterpe dantzariak. K. Aginako

OTXANDIO

Kanpaina barria jarri dabe martxan Gaztetxean

Eraikineko obra nagusiak amaituta, herritarrek Gaztetxeko ateak zabalik ditueela azaldu dabe

In enbarazu ta zabaldu Gaztetxeko atiek goiburuagaz kanpaina barria jarri dabe martxan herritarrek Gaztetxera hurreratzea gonbidatzeko. Orain lau-bost aste herriko kaleetan lau ate ipini zitueen. Egun batzuetara herriko ateetako heldulekueetan kanpainaren lema jartzen eban doku-mentua zintzilikatu eben. Hoteletan erabiltzen den sistema baliatuz, “enbarazu” egitera animatu ditue otxandiarrek: “Gizarte hone-

tan mugitzeak eta enbarazu egiteak daukan garrantzia kontuan izanik, enbarazu egitea gonbidatzen doguz”. Hoteletako “no molestar” esaldiari buelta emon eta “modu positiboan” enbarazu egitea da eskatzen dabena. Helburu hori betetzeko gazteek pres-tatzen ditueen ekitaldi kulturalen parte hartu leitekela azaldu dabe Gaztetxeko arduradunek.

Gaztetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak indibidualki eta kolektiboki erabili leitekela gogor-razo dabe: bulegoa, batzar-gela, eskulan eta jolasen txokoa, irakur-keta txokoa, boulderra eta beheko solairuko erabilera anitzeko aretoa martxan jarri ditue. ■ J.G.

Gaztetxeko zerbitzuak herritarrek erabili leiekela gogorarazo dabe

GALLASTEGI

gallastegiharategi@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

ORAIN DURANGON ERE BAI

IRAZ SANTAS AITON

Osasuntek
KLINIKA ETA KIRURGIA OFTALMOLOGIKOA

Jauregui medikua **Etxeandia medikua**

- Kataraktak
- Glaukoma
- Hesi-irritazioak
- Hesi-irritazioak
- Hesi-irritazioak
- Hesi-irritazioak
- Hesi-irritazioak
- Hesi-irritazioak

Zumalakarregi kalea, 18 (Solairu artekoa) Durango • Tel.: 94 655 09 43

BERRIZ

Autopistak eragiten dauen zarata maila jaisteko panelik ez dabe ipini oraindino

Aldundiak esan eban igazko udan ipiniko zitueela, baina oraindino ez dabe panelik ipini

Bilbotik Donostiarako A-8 autopista Berrizko hainbat etxebizitzaren ondotik pasatzen da. Lurralde Zati Planaren alegazinoen erantzunetan, Aldundiak argi itzi dau autopistaren trazatua aldatzea ez dabela posible ikusten, "arrazoi ekonomikoengaitik eta ekologikoengaitik". Dena dela, azpiegitura hori herrigunetik urruntzea posible ez den arren, Udala aspalditik dabil, gitxienez, autoek, kamioiek eta abarrek eragiten daben zarata txikituko leukien panelak ipintzeko eskatzen.

Bere sasoian, zarata mapa bat be osatu eban Aldundiak, eta han kalterik handieneko guneak zehazten zitueen. Autopistaren Berrizko tramua hantxe agertzen zen, beste hainbaten artean. Dagoeneko badabilz Bilbotik hasi eta Gipuzkoarainoko tramuan panelak ipintzen. Berrizen, 2008ko udan ipi-

niko zitueela jakinarazo eben, "baina 2009ko uda be joan da eta oraindino ez dabe ezelako panelik ipini", salatu dau Gorka Camara zinegotziak. "Bilbotik honantz hasi ziren panelak ipintzen, eta badakigu norabide horretan Berriz Bizkaiko azkeneko herria dela Ermua kenduta, baina halan be ipinita behar leukie", azaldu dau.

Azkeneko Hirigintza Batzordean gaia tratatu eben. Hurrengo hirigintza batzordean kontu honen gainean zer urrats emon erabakiko dabe. Baleiteke berriro beste idatzi bat bidaltzea panelak ipintzeko eskatuz. ■ J.D.

Hirigintza Batzordean gaia tratatuko dabe; baleiteke beste idatzi bat bidaltzea panelak ipintzeko eskatuz

MAÑARIA

'Book crossing' elkartruke ekintza ipini dabe martxan

Liburuak etxeko apaletatik kalera ateratzeko eta elkartrukeari bidea errazteko burututako ekintza

Herriko sei leku publikotan, herritarguztien bistara eta eskura, herrikideek halan gura badabe irakurri daiezen eta liburuak trukatu daiezen sustatzea dau 'book crossing' ingelesezko berbagaz izendatzen den ekimenak helburu.

Kale kantoiren batean liburuaren bat topatu eta zeure etxera eroan badozu, ez pentsatu baten batek ahaztuta itzikoa dela; 'book crossing' ekimena martxan ipini gura izan dabe herrian. Ekintza-

ren funtsa, baina, liburuak irakurri eta berriro gainerako herrikideen eskura ipintzea da. Herritarren sarea sortzea, azken finean. Hiri handietan ohikoagoak diren halako ekimenen bitartez, herritarren arteko elkarrekintza sareak ehuntzea da helburua. ■ I.E.

Kalean topatutako liburuak hartu, irakurri eta berriro elkartrukatzea da asmoa

Betzuengo iturburuan dau sorburua kutsadurak

Betzuengo hornidura moztu eta beste iturburuetatik bideratuko dabe ura



Aste osoan zehar berriztarren erdiak ezin izan dau ur hornidura sareko urik edan.

A tzo identifikatu eben kutsatutako uraren sorburua: Betzuengo iturburua. Segituan, ur hornidura hori moztu egin eben eta gainerako iturburuetatik hasi ziren herria hornitzen. Modu horretara, "asteburu honetan normaltasunera bueltatzea" itxaroten dau Jabier Azpitarte alkatetik. Udalak ahalik eta arinen ur hornidura berrezartzea dau helburu nagusi, baina, horrez gainera, "kutsaduraren arrazoia jakin gura dogu; zerk eragin dauen eta zergaitik sortu den". Aurreratu dabenez, Betzuengo sareko barriztea "datorren urteko inbertsinoetan lehentasuna" izango da.

Joan zen barikuan, asteroko prozedura jarraituz, Udalak ur sareko hainbat tokitan hartutako laginak bidali eutsazen Osasun Sailari. Horrek barikuan jakinara-

zi eutsen hidrokarburo aromatikoko poliziklikoen kantitatea araututakotik gora zegoela; gehienez 0,010 dago araututa eta 0,053koa zen. Berehala, herritarrei jakinarazi eutseen ura ez zela edangarria eta sukaldatzeko be ezin zela erabili: "Biztanleendako arrisku-tsua zen galdetuta, ezetz esan euskuen, eta bardin ganaduari buruz galdetuta be". Halan be, Osasun Sailaren aginduz, berehala zabaldu eben ura edateko debekua herritarren artean.

Hornidura bermatzen

Horregaz batera, ur hornidura ahalik eta herritar gehienei bermatzeko neurriak hartu zitueen. Murgoitio auzoak Mañaria-Ermua saretik jasotzen dau ura. Era berean, Murgoitio sare eta Matzagako depositu lotuta dagoz. Lehenengotik bigarrenera bidera-

tu eben ura, eta horregaitik trenbidetik beherakoek ur edangarria izan dabe asteen.

Segidan, kutsatutako uraren jatorria aurkitzeari ekin eutsien. Berrizek hiru hornidura sare daukaz. Hegoaldean bat, Mañaritik Ermuara doana, eta iparraldean bi: Oiz mendiko ur-bilketak, eta Oiz barreneko iturburuak. Asteburuan egindako azterketek Oiz mendiko urak araututako kantitatearen barruan zegozela erakutsi eben. Beraz, astelehen iluntzean bertan, Sarrian, Andikoan eta Besoitan ura edatea baimendu eben. ■ J.D.

Jabier Azpitarte: "Asteburu honetan normaltasunera bueltatzea itxaroten dogu, danendako ur horniduragaz"

GALDERA:

Zer auto lasterketa korrituko da zapatuan Muniketan eta Elgetan zehar?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jabetzerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Bixente Kapanaga, 9 - lurreta edo astekaria@anboto.org
helbidoetara, Hilaren azken alean agertuko da irabazlea.



Hileko irabazlea: Goretti Rodriguez (Durango)



ALMACENES ARRASATE



Kataide Industriegunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

**ORAIN
DURANGON!**

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



 1200 b/min 8 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA F-2812 465 -105 360 € FAGOR (Remove plans)	 1200 b/min 7 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA F-2712 420 -105 315 € FAGOR (Remove plans)	 1000 b/min 7 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA WM 10E 321 425 -105 320 € SIEMENS (Remove plans)	 1000 b/min 6 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA 3F-1610 335 -105 230 € FAGOR (Remove plans)	 1000 b/min 5 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA ALF-110 280 -105 175 € FAGOR (Remove plans)
 1000 b/min 5 Kg A+ Salkapen energetikoa GARBIGAILUA TS-50100 295 -105 190 € FAGOR (Remove plans)	 185 x 60 x 60 A+ Salkapen energetikoa HOZKAILUA DREAM G-185 490 -85 405 € FAGOR (Remove plans)	 144 x 55 x 60 A+ Salkapen energetikoa HOZKAILUA AFD-145 295 -85 210 € FAGOR (Remove plans)	 INDUKZIOA IF-35/X 475 € FAGOR	 LABEA ETA BITROZERAMIKA 360 -75 285 € FAGOR (Remove plans)

**REMOVE
PLANA**
GARBIGAILUAK
ONTZI-GARBIGAILUAK
HOZKAILUAK
IZOZKAILUAK

A -85 €
A+ -105 €
LABEAK -75 €

Kopieratu behar duzun irudiak guztia
duzun irudiak: berritu (argia kontsumatzen
arabakatu) irudiak aurkitzen.

A+ 20%
A 35%
B 30%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3. Roneo ondoan.

ABADIÑO

Euskararen ezagutza eta erabilera maila parekatu guran

Datorren urtean ipiniko dabe martxan Euskara Plana, euskararen erabilera sustatzeko helburuz

Uda aurretikoan hasi ziren herrian egin den lehenengo Euskara Plana osatzeko lehenengo pausoakemoten: herriko bederatzi esparrutako ordezkari legez, Abadiñon euskararen erabilera sustatzeko beharrezko ikusten ditueen ekintzei buruzko ekarpenak egin dituee dozena bat lagunek: Euskara Plana osatu aurretiko diagnosia eta ekintzen diseinua egiteko funtzinoa izan dau Aholku Batzorde horrek.

Batetik, hezkuntzan, euskalgintzan zein gazteriaren inguruan dihardueen herritarrak batu dituen batzarretan. 2010 urtean, batez be, "euskararen kaleko era-

bilera bultzatzeko zer ekintza burutu zehazteko helburuagaz" jardun dabe: eskolatik kanpora euskararen ezagutza eta erabilera maila parekatu daitezen.

Euskara Planaren barruko ekintza sorta jasoko dauen txostena osatuko dabe astelehenean egingo daben azkeneko batzarrean Aholku Batzordekoek. Urtea amaitu baino lehenago udalbatzarrean onartu daien Euskara Planaren txosten hori aurkeztea aurreikusi dabela azaldu deusku Elhuyar Aholkularitzagaz elkarlanean dinamizazio lana egiten diharduen Iñazio Arrizabalaga Udaleko euskara teknikariak.

Udalari jagokonez, hain zuzen be, 2010erako zehaztu ditueen helburu nagusi biak azpimarratu deuskuz Arrizabalaga euskara teknikariak: Udaleko hizkuntza irizpideak markatzea eta Euskara Ordenantza berrikustea.

Euskara Planeko diagnosia eta diseinua burutu dauen taldeak egitasmoaren jarraipena zein modutan egingo dauen be zehaztuko dabe astelehenean. ■ I.E.

Herrian bederatzi esparrutan aritzen diren dozena bat lagunek osatu dabe Euskara Planaren ekintza zerrenda

Asteleheneko batzarrean zehaztuko ditue 2010ean burutu beharreko ekintzak

Alokairu sozialerako 26 etxebizitza Muntsaratzen

Udalaren Muntsarazko lursaila Eusko Jaurlaritzari lagatzea onartu dabe



Babeseko etxebizitzak eraikitze lanetan dabilz orain Muntsaratzen.

Gobernu Taldeko independenteen eta jeltzaleen aldeko botoagaz –ezker abertzaleko zinegotziak abstenitu egin ziren– onartu eben, joan zen asteko udalbatzarrean, Muntsarat auzoan Udalak daukan lursaila Eusko Jaurlaritzari lagatzea.

Joan zen hilean zotz egin zitueen babeseko etxebizitzaren ondoko lursailan, alokairu sozialerako bideratuko dituen 26 etxebizitza eraikitzea da, Gobernu Taldeak udalbatzarrean azaldu eban, lursaila Eusko Jaurlaritzari lagatzearen arrazoia, eta Gasteizko Gobernuaren ardura izango da eraikuntza lana.

Independienteen eta jeltzaleen aldeko botoagaz onartu eben lursaila Eusko Jaurlaritzari lagatzea

"Historikoki proiektu honen kontra agertu garelako" abstenitu ziren ezker abertzaleko zinegotziak

Alokairu sozialera bideratuko ditueen etxebizitzak eraikitze lanak noiz hasiko ditueen oraindino ez dagoela zehaztuta be jakinarazi dau Navarro alkateak.

Lursaila lagatzeko proposamenaren aurrean abstenitu egin zen ezker abertzalea: "Historikoki proiektu horren kontra egon gara, herriarentzako proposena denik ez dogulako uste", Basauri zinegotziak azaldu eban. Kontra agertu arren proiektua aurrera doala ikusita, auzoan hartuko diren biztanleen beharrezanez erantzungo deuseen zerbitzu egokiak bermatuta egongo ete diren zalantza agertu eban. ■ I.E.

PRAKTIKAK EUROPA. EPEZ PROIEKTUKO IV delaldia

- Norentzat: UPV-EHuko titulatu berriak diren eta Bizkaian erroldatuta dauden pertsonentzat.
- Beka-kopurua: 45
- Herrialdeak: Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia, Portugal eta Txekiar Errepublika.
- Eskara-orriak eskuratzeko lekuak:
 - Bizkaiko Campuseko Enplegugunean edo www.ehu.es/enplegugunea web gunean.
- Informazio gehiago:
 - Durangaldeko Behargintzan edo orientazioa.mdurango@bizkaia.org-en

Izena emateko epea:

- Bizkaiko Campuseko Enplegugunean: 2009ko abenduaren 4a arte

informazio gehiago Durangaldeko Behargintza

Durangaldeko Behargintza

www.amanakomunazgoda.com

Eztabaida eta elkartruckerako hitzordua, joan zen asteburuan, Durangaldeko Gazte Topaketetan



Durangaldeko herrietako 60 gazte inguruk hartu eben parte joan zen asteburuko Gazte Topaketetan; ikasle mugimenduari, AHTari, feminismoari, sexualitateari, gazte sorkuntzari, aisialdiari eta komunikazioari buruz jardun eben mahai-inguruetan. Ideia, kezka eta jakinminen elkartruckerako hitzordua izan eben parte-hartu eben gazteek Abadiñokoa, eta "oso aberasgarritzat" jo dabe esperientzia.



ELORRIO



Hilabetean amaituko dabe argiteriaren gaineko azterketa.

ZALDIBAR

Futbol zelaia erabiltzeko ordaindu beharreko tasak

Solobarria futbol zelaia erabiltzeagaitik Udalak kobratuko dauen tasa eguneratu egin dabe

Azken hilabeteetan, inguruko hainbat herritako taldeek eskatu izan dabe Solobarria futbol zelaia entrenamendu edo txapelketak bertan egiteko erabiltzea. Inguruko gainerako herrietan erabilpen horregaitik Udalek kobratzen ditueen tasekin alderatuta, merkeagoa zen orain arte Zaldibar-koa, eta zerga hori erregulatzen dauen ordeanatzat eguneratzeko

Herriko erabiltzaileek 40 eta herritik kanpokoek 60 euroko tasa ordainduko dabe

beharra ikusi dabe Udalean: herri-
tik kanpoko erabiltzaileei parti-
duko 60 euro eta herriko erabil-
tzaileei 40 euro kobratzea ados-
tu dabe. Azken udalbatzarrean
sozialistek mahaigaineratu eben
futbol zelaia erabiltzeagaitiko tasa
eguneratzeko beharra, eta alder-
di guztiak ados agertu dira asteon
onartu daben ordenantza fiska-
laren moldaketagaz.

Bestalde, erregulatu barik
zegoen beste zerga bat be-
-lon-
jetan etxebizitzak egiteagaitik
ordaindu beharrekoa- zehazten
dauen ordenantza aho batez
onartu dabe Udalean. ■ I.E.

Argiteria publikoaren energia kontsumoa murrizten lagunduko dauen azterketa

Argiteria publikoaren azterketa integral horrek argi-kutsadura neurtzeko be balioko dau

Aste honetan hasi eta hila-
beteko epean, herriguneko
argiteria publikoaren azter-
keta egingo dau Consultoria lumí-
nica enpresak. Udalak 16.000
euroan esleitu deusaz lanak. Azter-
keta herrigunera mugatuko da;
auzoetara ez dazabalduko, “honee-
tan beste azpiegitura mota batzuk
dagozelako”, udal arduradunen
esanetan.

16.000 euroan esleitu dabe azterketa, eta emaitzak hilabete baten barruan jakitea itxaroten dau Udalak

**Kontsumoaren zein argi-
kutsaduraren gaineko datuak jaso eta horreei zelan aurre egin zehaztuko dabe**

Azterketa horren bitartez, kale
argien inbentario zehatz eta gaur-
kotua izateaz gainera, beste hel-
buru batzuk bete gura ditu Uda-

lak. Alde batetik, argiteria publi-
koak erabiltzen dauen energia
kontsumoa aztertuko dabe. Horre-
tarako, Udaletxeko fakturak azter-
tuko ditue, besteak beste. Behin
datuak batu eta aztertu ondoren,
kontsumoa ahalik eta gehien opti-
mizatzeko zer neurri hartu behar
diren zehaztuko dau azterketak.
Bestalde, kale-argiek eragiten
daben argi-kutsadura be neurtu-
ko dabe, eta ondoren kutsadura
mota horri aurre egiteko neurriak
jasoko ditue. Neurri horreek buru-
tzeak zenbat denpora eta kostu
izango leuken be zehaztuko dabe
azterketa horretan.

Azterketa hori Tokiko Agen-
da 21eko ekintzen barruan koka-
tuta dago eta diru-laguntzak jaso-
ko ditue EETik eta Industria Sai-
letik. Azterketa egiteko Euskadiko
Energia Erakundetik %50era arte-
ko laguntza jaso daikie. Ondoren,
azterketa horrek zehazten dituen
ekintzak burutzeko, Industria Sai-
letik jasoko leukie laguntza (kale-
ko argiteria publikoa barrizatze-
ko planean, Euskadi 2009 Plana-
ren barruan). ■ J.D.

Basilikako zati baten arkupea ez dabe itziko

Azken aspaldian gazte koadrilen
topagune bilakatu da Sortzez
Garbiaren Basilikako elizpea, eta
han batzen diren gazte batzuen
jokabideak zeresana emon dau.
“Jakinarazi deuskuenez pinta-
daren bat egin izan dabe, ate
bateko sarraila apurtu dabe eta
elizara doan jenteari irain egin
deutsie”, Niko Morenoren esane-
tan. Horregaitik, parrokoak basi-
likako mendebaldeko eta hegoal-
deko arkupea hesiz izteko eska-
tu deutso Udalari.

Mendebalde eta hegoaldeko arkupea hesiz izteko eskatu eben, baina Udalak ez dau horretarako baimenik emon

Horretarako, Aldundiaren
Kultura Saileko baimena behar
da, eta baimen hori lortu dau, bai-
na ez Udalarena: “Elizpeak fun-
tzino soziala betetzen dauela
pentsatzen dogu. Gaur egungo
joera degradanteak izan daiteke-
zen elementuak kentzea da. Ez
dogu uste zuzena denik arazo
konkretu honengaitik aipatuta-
koa moduko eragina izango
dauen obra egitea”.

Posible bada datorren astean
bertan elizako arduradunekin
batuko dira, arazoaz ez baitzeko.
Dena dela, Morenoren arabera
“arazoa ez da orden publikokoa
bakarrik; gurasoei eta hezkuntza-
ri be eragiten deutse”. ■ J.D.

IZURTZA

Kontzertuak Txabolaren bigarren urtemugarako

Bihar dira, 21:30ean Gaztelekuan, Txabolaren urteurrena ospatzeko antolatutako kontzertuak

Sei musika talderen zuzeneko-
kin ospatuko dabe bihar, azaroa-
ren 7an, Mañariko eta Izurtzako
musika taldeetako gazteek elkar-
tzeko eta entseguetarako orain bi
urtetik erabiltzen daben “Txabo-
laren” bigarren urtebetetzea.

Durungaldean eta Gipuzkoan
punk doinuak lantzen ditueen
dozena erdi talde aukeratu ditue,
bihar 21:30ean hasita, Gaztele-
kuan kontzertua eskaintzeko:
Orreaga 778, Last Rebels, Mate-
rial Rechazado, Old Glories, Tri-
bute to Cock Sparrer eta Ser-
mond's taldeek girotuko dabe
entsegu lokalaren urteurren jaia.

Orain bi urtetik Izurtza eta
Mañariko musika talde bik era-
biltzen daben Txabola entsegu
lokalean grabazinarako baliabi-
deak ipintzea dabe bertan biltzen
diren musikariek helburu. Bihar-
koa lako kontzertuen bitartez,
apurka-apurka inguruko taldeek
autogestinoaren bitartez euren
kantak grabatzeko baliabideak
eskaini gura ditue Txabolan. ■ I.E.

Musika taldeek euren kantak grabatu ahal izateko estudioa egokitu gura dabe

GARAI

Mendekotasuna eta eskubideak berberak

EHNE sindikatua eta Solidaridad
Intergeneracional elkartearen
eskutik, berbaldia egingo dabe
martitzen honetan Garain. Arra-
tsaldeko 16:00etarako ipini dabe
hitzordua.

Solidaridad Intergeneracio-
nal elkarteak baserri eremuan
bizi diren nagusiei arreta eskain-
tzea dau helburu, baita horreen
senideei laguntzea be. Leku apar-
tatu edo egoera jakinean bizi
arren, eskubide berberak dituee-
la jakinarazo gura deutsee.

Martitzeneko berbaldia be
bide horretatik doa: mendeko-
tasunaren legea azalduko dabe.
Emakumeak baserrian daukan
garrantziaz eta baserriaren egoe-
raz be jardungo dabe. ■ M.O.

katerin ardoak
iñaki uribe

saltsan

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andrea Mari kalea, 9 - DURANGO Tel.: 94 681 50 17

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA

Tfnoa. 681 43 85

■ IURRETA

Mallabiena-Arandia saneamendu sarea barrizten hasi gura dabe

“Premina” ikusita, lanak aurrera eroateko aukerak aztertu gura ditu Udalak

Mallabiena auzoan hasi eta Arandiako kolektore barriagaz lotzerainoko ur saneamendurako hoditeria barriztu gura dau, albait arinen, Udalak. Horretarako atera egin gura dabe zati hori saneamendu sarea barriztatzeko egindako egitasmo orokorretik. Hiru zati batzen ditu horrek: suhiltzaile-etxe barritik Bidebarrietarakoa —N-634 errepide nagusiaren azpitik—, Bidebarrietatik Mallabienarakoa eta Mallabienatik Arandiarakoa; 1,2 milioi euroko aurrekontua lotu dabe.

Egitasmoa urte honen hasieran egin eben. Halan be, udalbatzarrek Mallabienatik Arandiarai-

noko zati horren egitasmo zehatzagoa landu gura dau, eta horretara 2.000 euro bideratzea onartu barri dabe, EAJ eta PPren aldeko botoekin. “Preminagehien daukan zatia da azken zati hori, eta lanak aurrera eroateak zenbateko kostua izan leiken jakin gura dogu”, dino Iñaki Totorikaguena alkateak.

Aukerak aztergai

Datorren urtean Mallabienatik Arandiarako saneamendu sarea-ren zati hori barrizten hasterik badagoen aztertu gura dabe udal arduradunek. Holan bada, 2010eko udal aurrekontuan be horretarako dirua jasoko leukie. ■ A. B.

Suhiltzaile-etxe barritik Arandiara doan egitasmo orokorretik (1,2 milioi euro) atera gura dabe zati hori

Mallabienatik Arandiarako saneamendu sarea barrizteko egitasmoa lantzeraz 2.000 euro bideratuko ditu Udalak

■ ATXONDO

Asanbladako kide izanak Gaztetxe barrira deituta

Gaztetxe barria ezagutzera gonbidatuko ditue

Urtebete inguru luzatu diren lanen ostean, dagoeneko prest dago Gaztetxe barria. Herriko udako jaietan hainbat ekintza burutzeko zabaldu eben arren, orain dela gitxi amaitu ditue lanak: margoztuta dago, eta oholtza be prest dago.

Gazte Asanbladako hasierako 40 kide ingururi Gaztetxe barria erakusteko hitzordua ipini dabe azaroaren 13rako

Herritar guztiak gonbidatuko ditueen inaugurazioa, azaroaren 27tik abenduaren 4ra arteko asterako antolatuko ditueen ekintzekin egingo dabe. Horren aurretik, baina, orain 8 urtetik Gaztetxearen alde jardun daben 40 lagunei gura deutsee Gaztetxe barria erakutsi, gaur egun han dihardueen gazteek dinoenez. Aurreko belaunaldietako herriko gazteak Gaztetxe barriaren ingurura batzeko azaroaren 13an egin dabe eurekin hitzordua Gaztetxean lanean dabilzen gazteek. ■ I.E.

■ MALLABIA

Eguraldia lagun, giro ederrean ospatu ditue asteburuan urriko jaiak



Urriko jaiak emondakoagaz pozik dagoz antolatzaileak. Alex Txikonon emanaldiak aretoa bete eban barikuan. Pilotan, 22-7 galdu eben Onsalo eta Aldapek, Armendariz eta Gorrotxategiren aurka. Erromeria eta kontzertuek be arrakasta izan dabe. Tortilla txapelketa eta *Balboitik balkoira* bertso saioagaz amaitu dira jaiak.

Memoria landu ahal izateko tailerrak

Mallabiko Jubilatuen Elkartek memoria lantzeko tailerrak antolatu dihardu azaroan zehar. Tailer horreek herritar guztiei zuzenduta dagoz, eta azaroko eguazten guztietan emongo ditue. Jubilatuen elkartekoei asteon antolatu dabe lehenengo saioa. Ekimen hori martxan jarri ahal izateko, Udaleko Ongizate Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiak emondako laguntza jaso dau elkartek.

Arratsaldeko 16:00etatik 17:30era bitartean izango da hitzordua hurrengo saioetarako be Jubilatuen Etxean. Tailer horreetan parte hartuko daben hizlariak Nuria Santos eta Lahar irabazi asmorik bako elkartea izango dira.

■ DURANGO

Mendiko materialen merkatu txikia egingo dau Alpino Tabirak

Mendiagaz lotutako material eta arropak batuko dituen merkatu txikia antolatuko dau, azaroaren 13rako eta 14rako, Alpino Tabira mendizale elkarteak. Horretarako, ohi dabenez, dei zabala egin dabe salgai jartzeko material edo arropak elkarrekin Durangoko Goienkalen daukan egoitzara eroan daiezen halan gura dauenak. Azaroaren 10ean eta 12an zabalduko dabe horretarako, 20:00etatik 21:00etara. Gero, azaroaren 17an jaso ahal izango dira saldu ez direnak. Azaroaren 13an, 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik merkatu txikia, Alpino Tabira mendizale elkartekoei jakin eragin dabenez; hilaren 14an, barriz, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Astronomia Gelara bisitak

Astronomiaren Nazinoarteko Urteagaz bat eginda Durangoko Izarra elkarteak bisita gidatuak antolatu ditu Astronomia Gelara. Ikusmina daukien guztiei zuzendutako deia egin dabe, Laubideta 6an dagoen Gelara hurretaratzeko. Hil honetako zapatuetan izango dira bisitak, 11:00etatik 13:30era. Eguraldiak lagunduz gero, astroak ikusteko aukera be eskainiko dabe, 20:00etatik aurrera. Parte hartu gura dauenak honako telefonoetara deitu leike: 94 681 20 51 / 650 807 433.

■ IURRETA

Arriandiko 1831ko bide-seinalea metro bat inguru mugitu gura dabe

Arrantza portuetarako bidea egin zeneko Arriandiko bide-adierazlea mugitu egin gura dabe, metro edo metro erdi inguru. 1831n egindako bide-adierazlea mugitu eta lehengoratzeko 17.000 euro inguru beharko leukez Udalak, eskatutako aurrekontuaren arabera. Halan azaldu dau Iñaki Totorikaguena alkateak: “Errepide nagusiak geroago eta leku gehiago hartu dau, eta bidegurutzeari bide-adierazlean bertan dago. Zentzuzkoa da mugitzea”. Ibilgailu batek baino gehiagok jo ei dau. Azken talka uda aurretik izan zen, eta “segurtasunagaitik” goikaldean daukan ezkurra jaitsi egin da: “Ingurua hesitu da eta ez dago arriskurik”, dino alkateak. Lanotarako diru-atalik ez dago lotuta, oraingoz, eta 2010eko aurrekontuan sartzeko aukera aztertu gura dabe. Aldundiak be ia lagundu leiken aztertuko dabe.

■ ABADIÑO

Bizkaiko Batzar Nagusiak Gerediagan batu dira, asteon



Iban Gorriti

Bizkaiko Batzar Nagusiek Gerediagan (Abadiño) egin dabe, asteon, bilkura. Gai-ordenean jasotako gaien artean zegozen EB-Berdeek Eusko Jaurlaritzari egindako eskaria Bilboko tranvia Rekalde auzora heldu daiten, eta, AP-68 autopistako erabiltzaileendako beherapenak aztertzeke PPren proposamena. Eztabaidagai izan eben baita joan zen ekainaren 17an Espainiako Armada Gorbeia mendian izan zenekoa. Durangaldeko hainbat udal agintari be bertaratu ziren Gerediagako baselizan egindako batzarrera.

BERBAZ >

“Gazteek kalean dagozen drogekin elkarbizitzen ikasi behar dabe”

Mankomunitateko Drogomenpekotasunen Sailak gazteekin lanean dihardu ikastetxeetan



Vicente Fernández •

- Drogomenpekotasunen Saileko koordinatzailea
- Medikua

Durangaldeko Mankomunitateko Drogomenpekotasun Saileko teknikariak 1984tik dihardu eskualdean lanean. Gizartearekin batera drogak be aldatu egin direla azaldu deusku Vicente Fernándezek. Prebentzinoa indartzea ez dela teknikarien ardura bakarrik, eta guraso, irakasle, polizia, politiko, kazetari eta gainerakoek be lan horri ekin behar deuskiela gogorarazo deusku.

Drogomenpekotasun Saila zelan jarri zen martxan?

Drogomenpekotasunaren prebentzinorako saila 1990ean Durangoko udalak sortu eban, eta 1991n Mankomunitateak hartu eban arlo horren ardura. Gure funtzinoa drogomenpekotasunaren prebentzioan laguntzea da. Drogekin arazoak daukiezenei orientazinoa emoten deusegu.

Zer arlotan lan egiten dozue?

Mankomunitateko ikastetxeekin dihardugu. Guztira, 18 programa daukaguz martxan, tabakoa eta alkoholaren kontsumoaren prebentzinoa, esate baterako. Bizitzarako abileziak be lantzen doguz. Drogo-dependentsiak hartu-emon handia dauka substantziekin daukien jokatzeko moduarekin. Ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin, aisialdi taldeetako monitoreekin... hartu-emon na daukagu.

Gazteen artean prebentzinoa zelan bultzatu leiteke?

Gazteek drogekin elkarbizitzen ikasi behar dabe, ezinbestean erabili barik. Drogak beti egon dira eta egongo dira. Barriak sortuko dira eta beste batzuk desagertu egingo dira. Bizitzarako abildadeak emoten deuseguz guk, lagunaren presino taldeei aurre egiteko, autoestimua indartuz.

Kanpainak be egiten dozuez?

Jaietan alkoholemia kontrolak antolatzen doguz. Munduko tabakoaren kontrako egunean be bai.

Jente askokez dauzuen lana eza gutzen.

Lana itzalean egiten dogu. Dena dela, prebentzinoa ez da teknikarien lana bakarrik. Gurasoen, irakasleen, polizien, politikarien, kazetarien... lana be beharrezkoa da kontsumoa prebenitzeko.

Gazteen artera heltzea gata da?

Gehien kontsumitzen dabena 20tik 25 urtekoak dira. Adin horretara heltzea oso gata da, batzuek ez dabelako ikastetxeetan ikasten, edo unibertsitatean edo lanean dagozelako. Alkoholemia kontrol baten bai, baina modu erregularrean gata da. Hasteko adina beherantza doa. Tabakoa, batzuetan droga izaera emotea gata egiten jaku, baina adikzino gehien sortzen dabenetakoa da. Gauregun, 12 urtekoen arteko kontsumoa ikusten gabilz. Alkoholagaz be bai. Jente horrengana heldu geinke.

Kanpainak eraginkorrak direla deritzozu?

Guk gitxitzea lortu geinkena gizarteke inguruak kontsumo- ra bultzatzen dauen mailaren azpitik dabil. Tabakoaren kontrako kanpaina egiterakoan, konpainien kanpainak daukaguz. Alkoholaren kontsumoa jaitsi gura badogu, etxetik kanpo mugitzen diren eta alkohola dibertsinorako erabiltzen daben lagunaren presinoari aurre egin behar deusagu. Halan be, emaitza onak ikusten doguz.

“Ikastetxeekin dihardugu. Guztira, 18 programa daukaguz martxan”

“Gazteak geroago eta lehenago hasten dira kontsumitzen”

“Drogen kontsumo handiena 20 urtetik 25era bitartean izaten da”

Durangaldearen egoera zelan baloratuko zeunke?

Durangaldean herri txiki eta handien artean aldea dago. Durango eskualdeko zentroa da, baina Euskal Herriko beste herri handi batzuekin alderatuz gero, kontsumoa ez da handiagoa.

Hainbeste urtean zein bilakaera izan dabe drogek eskualdean?

Aldaketak gizarteagaz batera gertatu dira. Botelloia edo lonjen fenomeno ez zegoen lehenago. Hamabost urteotan cannabisaren erabileran gertatu den normalizazinoak kontsumoa igotzea eragin dau. Heroinareen kontsumoak nabarmen behera egin dau. Kokaina be kontsumitzen da. Extasia be agertu zen.

Puntutako karnetari eta tabakoaren legeari zer deritzozu?

Askok edaten badabe ez dabetkotxerik hartzen, beraz, funtzionatu egiten dauela esan leiteke. Tabakoaren legea ez da guztiz bete. Lege barria aurrera badoa, leku publikoetan ezingo da erre. Prezio igoera eta kontsumoa mugatzea dira kontsumoa jaitseko dagozen arrazoi nagusiak. ■ J. Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Europako enpresetan jarduteko aukera

‘Enpresetan Praktikak Europan Zehar’ egitasmoaren laugarren deialdia egin dabe; Durangaldeko Behargintzak be parte hartzen dau programa horretan

Europako enpresetan aurreneko lan esperientzia izan gura daben Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) tituludunendako ‘Enpresetan Praktikak Europan Zehar’ (EPEZ) egitasmoaren laugarren deialdia abiatu dau EHUko Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak. Horretan parte hartu dau Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa-Durangaldeko Behargintzak be, BBK Gaztelanbidean fundazioak, Getxolanek eta Lanbidek (Euskal Enplegu Zerbitzua) ez eze.

Frantzia, Portugal, Italia, Erresuma Batua, Alemania eta Txekiar Errepublikako enpresetan praktikak egiteko aukera izango dabe beka-programaren onurak

jaso ahal izango ditueen 45 gazteek. Orain dela gitxi EHU titulu atera daben Bizkaian erroldatutako gazteek egin leikie eskaria, azaroaren 12tik abenduaren 4ra.

2010eko martxoan

EPEZ egitasmoak 14 aste iraungo dau, eta hautatutakoek Leonardo da Vinci beka be izango dabe — atzerriko egonaldiaren kostunagusi aurre egiteko: bidaia, aseguruak, ostatua, kudeaketa...—. Lizentziatuen “gaitasun profesionalak” hobetu gura ditu egitasmoak, eta harrera herrialdeetako lan egiteko erak ezagutzea sustatu. 2010eko martxoan joango dira herrialdeotara egitasmorako aukeratutako gazteak. ■ A.B.

Lizentziatuen “gaitasun profesionalak” hobetzea da helburua, eta herrialdeotako lan egiteko erak ezagutzea

Bizkaian erroldatutako EHUko tituludun gazteek azaroaren 12tik abenduaren 4ra egin leikie eskaria



EPEZ egitasmoaren bultzatzaileek agerraldia egin dabe, asteon, Bilbon. Durangaldeko Behargintza

Esnearen sektorea “berrantolatu” behar dela dino EHNE-Bizkaia

“Sakoneko politika aldaketa” barik, esne sektorearentzat Aldundiak aurreikusitako neurriak bape ez dabela balio dino EHNE-Bizkaia: “Sektorea berrantolatu behar da, produkzio eta industria mailan”; uda aurretik proposamen “zehatzak” aurkeztu ei zitueen.

Esnearen sektoreari lagundu guran mendiko konpentsazio ordainen kobrantza aurreratu dau Bizkaiko Diputazioak, eta, konpentsazio-ordainak baimendutako gehienera igo. Sektorea suspertzeko 4,3 milioi euro inbertituko ditu Nekazaritza Sailak 2009an. Nekazaritza eta ingurumeneko laguntzen kobrantza be aurreratu dau Aldundiak, eta sektorearentzat garrantzitsuak diren beste laguntza ildo bi gehitu: sega-belardietarako eta belardiak ongarrizatzeko laguntzak. “Koiuntura ekonomiko gaxari” aurre egiten laguntzeko likidezia neurriak diseinatu ditu: ustiategi batzuek, ekoiztutako litroko 0,12 zentimo galtzen dabe. ■ A.B.

Enpresak sortzeko ikastaroa eskainiko dau Behargintzak

Enpresak sortzeko ikastaroa antolatu dau Durangaldeko Behargintzak. Beharrezko ikastaroa da Eusko Jaurilaritzak emoten dauen autoenplegurako dirulaguntza jaso ahal izateko eta azaroaren 10etik 25a bitartean iraungo dau (56 eskola ordu).

Behargintzan bertan emongo ditue eskolak, 09:00etatik 14:00ak bitartean. Informazio gehiago gura dauenak honako telefono zenbaki honetera deitu leike: 94 623 25 22. ■ A.B.

kolaborazinoa



Ainhoa Iturbe
ENHE sindikatua

Baserritarrok greban

Zer? Guk ez genuela parorik egiteko eskubiderik pentsatzen al zenuten? Ba, bai, badugu. azaroaren 20an eta 21ean baserritarrok paroa egingo dugu. Hain egoera larria da zuentzat jatekoa sortzen lan egiten dugunona, bai Hego Euskal Herriko bai Espainiar Estatuko nekazal sindikatu guztiek bat egin dugula lanuzte deialdi honekin.

Baserrir mundaun ardura duten administrazioak multinazionalen alde egiten ari diren lana hain eraginkorra izan da ze, gaur egun bertoko baserrigintza eta baita Europako beste hainbat herrialdeetako be hil ala biziko egoeran dagoela; eta erdi-bizi erdi-hil dauden hainbat alor (esne behiak, txerriak...) dirulaguntzen kate itogarriari esker bizi direla, dirulaguntzena azkenean kate bat delako, samaraino murgildurik egotera behartzen gaituen kate bat, eta ez itotzetik salbatuko gaituen soka. Zuk segi hor, uretan, nire kateari esker ez duzu behera joko, baina gora egiten ere ez dizu utziko. Hori bihurtu dira laguntzak, katea goitik moztu eta gu itotzea erabakitzen duten arte.

Lanuztea egingo dugu bi egunez, baina ez dugu jende ilara luzerik ikusiko karrokadak betetzen

Lanuztea egingo dugu bi egunez, baina ez dugu jende ilara luzerik ikusiko merkatu eta merkatal-guneetan janari karrokadak betetzen gosearen beldur, garraiolariek, gasolindegiek edo beste batzuek greba egiten dutenean bezala.

Pentsa, garraiolariek bi egunetako greba egiten dute eta jende guztiak jatekoz betetzen du despentsa; gasolindegiek greba egiten dute eta jende guztiak jatekoz betetzen du despentsa; bi jai egun segidan datoz eta jende guztiak jatekoz betetzen du despentsa.

Pentsa: azaroaren 20an eta 21ean lanuztea egingo dugu jatekoa sortzen dugunok, eta nork beteko du aurretik jatekoz bere despentsa?

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

A. Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANTAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología
Urreta Jainaga
PODÓLOGA 100. Eragileak

KULTURA[>]



Argazkia: Kepa Aginako

POESIA> ERREZITALDIA

Duintasunez eta apal, Xabier Lete

Joxe Angel Irigaray lagunaren berbatan, Xabier Lete benetakoena, *Egunsentiaren esku izoztuak* idatzi zuena, bertatik bertara ikusteko aukera paregabea izan zen joan zen zapatu iluntzeko Plateruenekoa.

Orain urtebete Durangoko Azokan –hamabost urtez libururik kaleratu barik egon ondoren– idatzitako olerkien bildumatik autoreak hautatutakoak egilearen ahotan jaso zituzten zapatuan Plateruenera bertaratutakoek. Barnebarneko sentipenen adierazpena diren olerkietako berba bakoitzak barruan eragiten dizkion sentipenak, entonazioa, isiluneak eta esku-mugimenduak baliatuz konpartitu zituen Letek entzuleekin.

“Zer arraio ote da poesia?” galdetu zion hasi orduko Letek bere buruari, eta esan ezinekoea esaten saiatzetik sortzen den horixe dela erantzun zuen. Esaten zail direnak, sarritan galera, desenkantua eta heriotzaren ingurukoak, apaltasun eta duintasun ikaragarriak lantzen dituen poeta oiartzuarra laguntzen, bere soinu handiagaz etorri zen Joxan Goikoetxea, bizitza soinu baxuago eta altuagoen bitartez interpretatzen.

Lagun edo maitaleen galertatik sortutako berbak biltzen dituen *Neguan izan zen* ataleko olerkiak irakurri eman zuen saioa amaitutzat Xabier Letek: emozio oinarritzkoenak benetakotasunez, apal eta duintasunez adieraziz. ■ I.E.

‘Egunsentiaren esku izoztuak’ liburuko poemak irakurri zituen

12 Elorrioko Jazz Blues Jaialdia

Aurten bi hamarkada dira Elorrion Jazz eta Blues jaialdia antolatzen hasi zirenetik. Azaroaren 12an, Mina Agossi eta laguntzen duen jazz hirukotea dira lehenengo gonbidatuak.



13

Etxe, disko berria aurkezten

Bilboko FNACen aurkeztu du musikari berritzarrak ‘Heldu eskutik’ izeneko disko berria, martitzen honetan. Solasaldia izan dugu beragaz.

MUSIKA > JAIALDIA

Jazz eta blues doinuak zazpi gautan gozagarri Elorrion

XX. edizioa du Elorrioko Jazz eta Blues jaialdiak aurten. Estatuko zein nazioarteko taldeen kontzertuak daukaguz aukeran zazpi egunetan



Hogeigarren edizioa du Elorrion udazkeneko antolatzen duten jazz eta blues musika zaleei zuzenduriko jaialdiak. Azaroaren 12an dalehenengo emanaldia, eta 22ra arte beste sei kontzertu izango dira Ateneoan eta Portalekua zein Parra tabernetan. Nazioartean zein Estatuko jazz eta blues eszenan adierazgarri ak diren Frantzia, Txekiar Errepublika, Bartzelona, Ingalaterra, Merida eta Valladolideko musikariak etorriko dira Elorrion.

Mina Agossik
zabalduko du
XX. edizioa

Jaialdia zabalduko duen luxuzko gonbidatua sustrai afrikarrak dituen Mina Agossi frantziarraren ahots berezia izango da. Bere ahotsa, rocka eta bluesa elkarriko ditu Elorrion: azaroaren 12an, 22:00etan, Ateneoan erakutsiko du nola erro afrikarrak eta inprobisazioa uztar daitezkeen.

Ateneoan baina 22:30ean da, barikuan, Bartzelonako Miralta, Sambeat & Kamaguchi Trio hirukotearen emanaldia. Estatuko jazz musikari onenetakotzat jotzen dituzten biak eta Masa Kamaguchi musikari japoniarra elkartuko dira azaroaren 13an: saxoa, kontrabaxua eta bateria.

Azaroaren 14an eta 15ean bluesa izango da Ateneoan eta Portalekua betetzen: Estatu Batuetako tradizioan oinarritutako blues

kantak eskainiko dituzte argazkiko Spikedrivers ingelesek, zapa-tuan, eta Valladolideko Bluedays boskoteak, domekan. ■ I.E.

Azaroaren 14an
eta 15ean blues
doinuak nagusi

GEURE DURANGALDEA



J.M. Urrutia, 'Txotxe'
Irakaslea

La Negra

Urriak eman ditu eman beharrekoak, baina gogora ekarri nahi-ko nuke Mercedes Sosaren heriotza; urriaren 6an, hain zuzen. Gogoko nuen, oso, Tucumanen (Argentina) jaioetako abeslari hau. Behin eta berriro animatzen gintuen abestera, abestia, proklama, errebindikazio bezala hartuz eta modu honetan herriak bere arima lau haizetara zabaltzeko bidea zuela aldarrikatzen zuen abeslariak. Urte luzetan bere herriak ezin izan zuen eskubide hau bermatu, eta bera izan zen Hegoamerikan ahotsik gabeko herriaren mezularia; baserritarrena, langileena, erbesteratue-na, desagertuena, irakasleena zein indigenena.

Hedabideetara jo nuen ea zer berri zekarten, eta nire harri-durarako, denek, ezkerrekoek zein eskuinekoek, *Solo le pido a Dios* abestiarekin lotzen zuten Mercedes Sosa, bere bizitzan beste abestirik kantatu ez balu bezala. Gustuko dut abestia eta berak dakarren mezua; hala ere, nik diodan miresmenetik iruditu zitzaidan emandako trataera oso sinplea, inozoa, laua, berdina zela, hedabideak hain ezberdinak izanda. Paperezko komunikabideetan begiratuta, gero Internetera jo nuen, eta berdin. Kazetaria den lagun batengana jo nuen, eta albistea agentzia batek eman eta hedabideek zuzenean txertatu zutela esan zidan. Horra hor berdintasunaren, inozokeriaren arrazoiak. Mindu egin nintzen, nire uste apalean emakume horrek gehiago merezi du, abeslari eta emakume bezala.

Zutabetxo honetatik, Internet bitartez *Abril en Managua* kontzertua ikustera animatzen zaituztet. Han zegoen 1982. urtean bera Nikaraguaren askapena ospatzen. Animatzen bazarete, eta horretan nago, hurrengo urratsa kilker bezala koroan parte hartzea izango litzateke, eta berarekin batera *Cuando tenga la tierra* abestia abestea.

EGITARRAUA

Azaroak 12, 22:00, Ateneoan: MINA AGOSI TRIO (Jazz)
Azaroak 13, 22:30, Ateneoan: MIRALTA, SAMBEAT & KAMAGUCHI TRIO (Jazz)
Azaroak 14, 22:30, Ateneoan: SPIKEDRIVERS (Blues)
Azaroak 15, 21:30, Portalekuan: BLUESDAYS (Blues)
Azaroak 20, 22:30, Ateneoan: POINTS (Jazz)
Azaroak 21, 22:00, Ateneoan: WILKO JOHNSON + BENJAMIN TEHOVAL (Blues)
Azaroak 22, 21:30, Parran: CHILIS CON CARNE (Blues)

FILM LABURRAK > LEHIAKETA

Hamabi film labur 24 Ordu Digitaletan

Maritalavista Producción taldearen 'Konsumo Kuidado' hautatu zuen epaimahaiak irabazle

Laugarren edizioa izan zuen, joan zen asteburuan, Elorrioko 24 Ordu Digitaletan film laburren lehiaketak. Bariku arratsaldean antolatzaileek emandako oinarrien bila hamabost talde aurkeztu ziren, urriaren 30ean. Zapatu arratsalderako lana osatu eta amaitutzat eman ondoren aurkeztu zutenak dozena bat izan ziren baina.

Durangaldeko
herrietako
parte-hartzaileak

'Konsumoa' eman zieten euren ekoizpenetarako gai nagusi moduan guztiei. "Txapel batek bi buru ezin estali" esaldia aipatu eta papelezko hegazkin bat agertu beharra zuten euren ikus-entzunezkoetan. Bariku arratsaldean antolatzaileek emandako hiru oinarri horien arabera sortu zituzten euren lanak lehiaketara aurkeztutako hamabiek.

"Kalitate handikoa" delakoan, Elorrioko Maritalavista Producción taldearen *Konsumo Kuidado* lana aukeratu du irabazle epaimahaiak: 700 euro jaso ditu talde horrek lehenengo sariaren ordainetan. *Mensaje, Parmeni-*

des se equivocaba, Delirio Baldio eta *Non Erosi* lanak osatu zituzten lau taldeek, bestalde, 500 euroko akzesitak jaso zituzten.

Egun bateko epean film labur bat ekoiztean datzan lehiaketara aurkeztutako lanen kalitateari dagokionez, iaz hobekuntza han-

'Konsumoa' izan zuten
film laburrak osatzeko
landu beharreko gaia

dia nabaritu zela eta maila hori mantendu dela nabarmendu dute antolatzaileek. Elorrioko lehiaketaren laugarren edizioan ere kide gehienak Durangaldekoak dituzten taldeek egindakoak izatea ere pozteko arrazoi-tzat dute antolatzaileek. ■ I.E.



K.Aginako

MUSIKA > ELKARRIZKETA



Etxeren hirugarrena, denpora hartuta eta lagun giroan egina

Martitzenean aurkeztu dau komunikabideen aurrean **Etxek** urtebeteen prestatzen jardun dauen **'Heldu eskutik'** diskoa. Azaroaren 21ean bere herrian, Berrizko Kultur Etxean joko ditu taldekideek lagunduta eta zuzenean lehenengoz, hirugarren disko honetarako sortutako hamaika rock kantak. Kanta horiei eta beste hainbat konturi buruz mintzatu jaku musikaria

Baga-Biga disketxeagaz ateratzen dozun lehenengo diskoa da hirugarren hau.

Aurreko diskoa Oihukagaz kaleratu genduen, baina bertako managerrak itzi egin ebanez eta Baga-Bigak diskoa, managementa eta dena eskaintzen dauenez, aukera ona eritzi geuntsan Baga-Bigarenari. Nahiko indartsu dabilen disketxea da; talde potenteak daroez eta zuzenekoak lortzeko zein promozinorako be asko mugitzen dira.

“Melodia eta doinu alaiagoak dagoz, orokorrean, disko honetan”

Geroago eta ugariagoa den autoekoizpenaren bidea ez dozu planteatu?

Lehenengo grabazinoa, Berrizko Gaztetxe-ko Aldapa maketa lehiaketa irabazteagaitik jasotako saria izan zen: bost kantako maketa Lorentzo Recordsen grabatu eta autoekoizpenaren bidetik egin neban. Bigarrenean eta *Heldu Eskutik* hirugarren honetan disketxeagaz jardutea aukeratu dot.

Zer sentsazio daukazu diskoagaz. Pozik zagoz lortutakoagaz?

Aurreko diskoak –maketa eta diskoa– oso segidan egin genduzen. Disko honetarako, aldiz, urtebeteko epea hartu dogu: azaroan itzi geuntsan zuzenean jotzeari, eta urtariletik kantak sortzera zentratuta ibili naz. Uztailean sartu ginen diskoa grabatzera, eta bi hilabeteen horretan jardun dogu. Lan-
duagoak direla esango neuke *Heldu Eskutik* honetakoak. Askok landu dogu lortu gura genduen soinua... Beste diskoagaz baino sentsazio hobeagaz geratu gara.

Soinu aldetik zein orokorrean, noranzko eboluzinoa izan dau Etxek?

Esango neuke apur bat rockeroagoa dela disko hau. Beste diskoetan baino doinu eta melodia alaiagoak eta erritmo biziagoak dagozela esango neuke.

Taldea finkatu izanak be izango eban eraginik eboluzino horretan, ezta?

Askok eragiten dau horrek be. Hasieratik esan izan dot gura nebala lagun arteko talde bat. Denok gagoz taldean inplikaturik, eta diskoalantzerakoan be asko igartzen da euren eskua. Argi dago nire proiektua dela, baina asko aportatzen deuste taldekideek. Elkarregaz jotzen gustura sentitzen gara.

Esan leiteke 'Heldu eskutik' lasaiago prestatu ahal izan dozula?

Lehenengo bost kantako maketa kaleratuta, 2006an eta 2007an kontzertuak emoten ibili ginen, eta 2007ko udaberrian kaleratu genduen *Bidea Eginez* diskoa. Dena oso arin joan zen hasierako urteetan. Azken hau, trankilago egindako diskoa da.

Zelan antolatu dozu urtea?

Etxean kantak egiten hasi nintzen orain urtebete inguru; programa informatikoekin bateriak programatu eta sortzen hasi. Neuk sortutako kanta horreek taldean entseatzeko hasi ginen gero, apirilean. Lau-bost hilabete egon nintzen kantak egiten, beraz, eta Aste Santu bueltan diskorako denok elkarregaz jotzen hasi ginen. Hiru hilabeteen topera entseatzeko jardun genduen, eta uztailean ekin geuntsan grabaketari. Grabazinoa be denporagaz hartu dogu, trankil egin ahal izateko. Igartzen da grabatzeko orduan be beste patxada batez egin dogula, eta gauzak argi izan doguzela. Tal-

dekide bakotzak zein teknikariek oso argi izan dogu zein zen gure egitekoa.

Estoldetan grabazino estudioa herrian bertan edukitzeak be erraztu egingo eutsun lana, ala?

Bai. Gainera, zuzenekoetan be geugaz lan egiten dauen Jon Olabarriaga teknikariagaz egin dogu lan. Berak badaki zer gura dogun, eta askoz errazagoa da holan lan egitea. Estoldetanen, gainera, Berrizen gagoz, ez da estudio handi batera joatea eta presinoagaz lan egitea. Trankil, denpora hartuta eta lagun giroan egin dogu.

“Gitarrari helduta hasten naz normalean kantak sortzen”

“Disko honetan Laboari eskainitako kanta bat egingo nebala argi neukan”

Doinu eta melodia biziagoak edo alaiagoak batu dozuez, beraz, disko honetan.

Disko honetan be badagoz pare bat edo hiru kanta apur bat ilunagoak direnak, baina orokorrean bai; melodien eta kantuen egiturak alaiagoak dira, eta abiadura bizia-
goa daukie gehienek. Animatuagoa da alde horretatik diskoa. Gero, letretan sartzen bazara, badagoz kanta tristeagoak; baina orokorrean oso bizia da *Heldu eskutik*.

Zelan egiten dozu konposatzeko lana?

Normalean egiten dodana, lehenengo gitarra grabatzea izaten da. Behin kantaren estruktura eginda daukadanean, baxua grabatzea eta bateriak programatzea izaten da hurrengo lana. Gero, melodia atera eta horren arabera idazten dot letra. Taldekoei pasatzen deutset azkenik, musikari bakotzak bere ikutua emon deien kantei.

Beti egin izan dozu era horretan lan?

Ez, disko honetarako lan egiteko erosi nituen tresnak, etxean trankil sortzea gura nebalako. Lau edo bost hilabete lokalera joan barik emon ditut.

Letrak musikara moldatzen dozuz, beraz.

Errazago egiten jat holan egitea. Melodia eta egitura eginda daukadazenean, bada-
kidanean zenbat silaba sartu behar dodazen, orduan hasten naz letragaz. Azkene-
rako izten dot, eta letra kantara moldatu.

“Argi dago nire proiektua dela, baina asko aportatzen deuste taldekideek”

“Kantaren melodia atera eta, ondoren, horren arabera idazten dot letra”

Zertaz diharduzu diskoan?

Single moduan aukeratu dodan kanta, esaterako, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko elkarrizketa moduan osatu dot. Anje Duhalderen kolaborazinoa izan dot kanta horretan. Iparraldea ahaztuta izaten dogula eta sortu neban letra hori. Badagoz beste kanta bi, Mikel Laboari eta nire anaiari eskainitakoak... Orokorrean, maitasun desbardineki buruzko kantak dagoz: Euskal Herriari, lagunei, musikari... deutsedan maitasunari buruzkoak.

Laboari eskainitako kanta zelakoa da?

Laboaren jarraitzaile izan naz beti. Igazko abenduan, diskoa prestatzen hasi nintzenean hil jakun, eta hunkitu egin ninduen. Hasieratik izan neban argi disko barriko kanta bat berari eskainitakoa izango zela; Euskal Herrian egon den musikari handienetakoa da, eta merezi eban.

Zarama taldeko Roberto Mosok be kolaboratu dau diskoko kanta batean.

Ametsak betetzen kantan kolaboratu dau Zarama taldeko Roberto Mosok. Buelta-
tzekotan zegozela jakin nebanean, Bilbo-
ko kontzertura joan eta oholtzatik jaitsi zenean esan neutsan, “Gura dozu kanta-
tu?”, eta baietz erantzun eustan. Askok jarraitu izan dodan taldea da Zarama...

Ez da zure belaunaldiko taldea, halan be...

Egia da. Baina anaiengandik ezagututa, oso gogoko izan ditut beti Zarama, Hertzainak eta Doctor Deseo moduko taldeak. Beti esaten dot musikari jagokonez, daukadazene gustuen arabera, hamar urte zaharragoa nazela.

Lotu dozuz aurkezpen kontzertuak?

Bai. Azaroaren 21ean Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko dogu diskoa. Hurrengo astean Durangoko Plateruenean, eta Donostian eta Bermeon be joko dogu. Azken batean, zuzenekoek begira ateratzen doguz gaur egun diskoak. ■ I.E.

MUSIKA> JAIALDIA

Musika klasikoaren hiru ikuspegi Iurretako Musikaldian

Mikel Deuna kultur elkarteak antolatu ditu Musikaldiko hiru kontzertuak

Victor Jimenez eta Jose Miguel Cacho de Agustin ingeniari eta musikariak dira Impromptu osatzen duten musikariak, eta aurten Iurretako Musikaldia zabalduko dutenak. Musikaren bitartez zein hitzek eta ikus-entzunezkoek lagunduta, kasuan kasuko musikariarengana gerturatzen dituzte entzuleak Impromptu taldekoek.

Impromptu taldeak
abiatuko du, gaur
iluntzean, Musikaldia

Iurretako Aita San Migel parrokiako gaurko emanaldian XIX. mendeko musikari garrantzizkoenentzat duten Franz Schubert da gerturatuko diguten kon-



Bogoroditsie eta
Bartolome Ertzillak
azaroaren 14an

posatzailea: bizi zela bere sorkuntzetako bat bera ere interpretatua ikusi ez zuen egilearen lanak izango dira Imprompturen eskutik. Naroa Intxausti Bolunburu soprano basauritarra ere gonbidatu dute gainera, 19:00etatik aurrera, Iurretan izango den saiora.

Schuberten piano eta bibolinerako abestiak eskaniko dituzte Mikel Deuna kultur elkarteak antolatzen duen Musikaldiaren lehenengo saioan, esperientzia handia duen eta aurreko edizio batzuetan ere Musikaldian parte hartu izan duen Impromptuk.

Bihar, Iruñeko Tafelmusik Ensemble taldea arituko da, 19:30etatik aurrera, Aita San Migel parrokian. Nafarroako hiriburuan azken urteetan sortutako musika klasikoko hainbat talde eta bakarlaren elkartzetik eratutako taldea da Musikaldiaren bigarren kontzerturako ekarriko dutena.

Bihar, Iruñean sortutako
Tafelmusik-en musika
klasikoa eta barrokoa

Jatorriz Europa ekialdeko herrietakoak diren eta Iruñean elkartu diren musikariek osatzen dute bihar Iurretan entzungai izango den Tafelmusik Ensemble. Batez ere, musika barrokoa eta klasikoa jotzen dute interpreteek, bibolin, biola eta biolontxeloekin.

Egitaraua

– Azaroak 6, 19:00 –
Impromptu, kontzertu didaktikoa, Aita San Migel parrokian

– Azaroak 7, 19:30 –
Tafelmusik Ensemble, Aita San Migel parrokian

– Azaroak 14, 19:30 –
Bogoroditsie eta
Bartolome Ertzilla
abesbatzak, Aita San Migel parrokian

Datorren zapatuan, Iurretako Musikaldiaren aurtengoa amaitzeko, Durangoko abesbatza bi dira gonbidatu dituztenak: azaroaren 14an, beraz, Durangoko Bogoroditsie eta Musika Eskolako Bartolome Ertzilla abesbatzak dira aritzekoak Iurretako Aita San Migel Parrokian. Musika klasikoaren hiru ikuspuntu desberdin gozagarri ditugu, beraz, gaur, bihar eta azaroaren 14an, Iurretan. ■ I.E.

ARTISAUTZA> AZOKA

Juan Unzueta omenduko dute Euskal Denda-ren 14. edizioan

Euskal Denda artisautza azoka iragarriko duen kartelaren aurkezpena egin du asteon Arbaso elkarteak; aurtengo nobedadeak ere aurreratu dituzte

Abenduaren 4tik 8ra arte, Durangoko Liburu eta Disko Azokaren egunetan Durangoko Merkatu Plazan izango den Euskal Denda artisautza azoka iragartzen duen kartela aurkeztu dute antolatzaileek. Arbaso artisauen elkarteak kideen berbatan, irudi soilaren aldeko apustua egin dute kartela aukeratzeko: 14. Euskal Denda hizkiak nabarmentzen ditu kartelak. "Xumea baina aldi berean zuzena" da kartela, antolatzaileek nabarmendu nahi izan dutenez.

Aurten 65 erakusle izango direla aurreratu dute, irudia aurkeztearekin batera. Merkatu Pla-

Aurten 65 erakusle
izango dira artisautza
lanak erakusten

Galizia, Katalunia eta
Euskal Herriko
saskigileen topaketa

zan konponketak egin dituztelako, inoiz baino ikusgarriagoa izango omen da aurten azoka.

Azokan parte hartuko duten artisau guztietatik bederatzi lehenengoz etorriko dira aurtengo azokan. Azokan esperientzia handikoa den Juan Unzueta saskigilea omenduko dute hamalagarren edizio honetan: Arbaso elkarteak eskaintzen duen Artetsu Bizi Osoa saria artisau lanean 75 urte daramatzan Unzueta durangarrari emango diote. Gaztaina zuragaz saskiak egiten ditu 85 urteko artisauak, eta Euskal Denda 2009ren omenaldi beroa jasoko omen du.



Saskigintzan lanean 75
urte daramatzan Juan
Unzueta omenaldi

Aurtengo berritasunen artean, bestalde, Galizian, Euskal Herrian eta Katalunian saskigintza lantzen duten artisauen Galeusca topaketa antolatu dute lehenengoz: zazpi saskigile bertaratuko dira, eta saskigintzako ehun piezagaz erakusketa ikusgai izango da Merkatu Plazan. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



AZAROAK 7 18:30etan
TXIRI-TXIRI MUSIKA ELKARTEA:
10. URTEURREN JAIA + LUHARTZ
BAZKARIA + ERROMERIA. Sarrera doan.



AZAROAK 12 20:00etan
KANTUAREN KANTOIAN.
Gonbidatua: Txuma Murugarren
BERBALDI MUSIKATUA. Sarrera doan.



AZAROAK 13 22:00etan
ARON BURTON & LOS
REYES DEL K.O.
KONTZERTUA. Sarrera: 12-15 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

DIKTAT

611 TEATRO (Madrid)

Azaroak 7 • 20:00etan

San Agustin
KULTUR
GUNEa

DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

Gremioen gida



Iturgintza



Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa

Amendi, 16 - beheko 3. aldea
Saketakoa: 94 681 58 54
Faxa: 94 681 51 58
Iurretza

Balmendun
Instalazioak

Elektronika

 **URBASA Elektronika**

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SORBUA - BIDEA - IRUJATA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITU BIDEZ - ALARMAN

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic



Mallabiena 

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurretza • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, beheko
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Irteera katea: 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Artiaga

grebioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Lorazaintza

Jardines **Patxi** *Lorategiak*

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inaustaketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldeak
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teitatu, fatxada, bainugelak, etab.

Artas Estegiz etorb. 11 - 3. B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57

Ubide
iturgintza

188 PK
48200 DURANGO
94 603 05 08
625 70 22 08
ubide@euskaltel.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Pintura

Ibai Urien Madrazo

Pintura
apaingarria
eta industriala

Sagasta
Pinturak

Sagasta aldea
Anbe Golekoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944

- Eragarriak, posak, berrak, berrak, berrak, berrak
- Eragarriak, posak, berrak, berrak, berrak
- Eragarriak, posak, berrak, berrak, berrak
- Eragarriak, posak, berrak, berrak, berrak

Barne Dekorazioa

a-metz
[barne]diseinua

Diseinua
Dekorazioa
Idiok
Proiektuak - 3D
Legalizazioak
Erreforma
Gremioen
koordinazioa
Alizeak
Osagarriak

Ibaizabal, 3A beheko, 1D
48200 Durango/ Bizkaia
T. 94 681 84 81
M. 600 267 373



www.a-metz.com

HEMEN AGERTU

GURA BADOZU

DEITU

94 621 79 02

44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durangaldeko Adiskideen



**“Ahalegin berezia egin dugu modernizazioan,
forma eta leiho berriak ikertzen”**

Nerea Mujikak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Gerediaga Elkarteko zirrikituak. Lehendakari moduan milaka egun eta gau eman ditu Durangalderako ekimenak sortu eta antolatzen. Izerdia barra-barra, irribarrea bizi-bizi.



Nerea Mugika, Gerediaga elkarteko lehendakaria. Gerediaga Elkartea

Gerediaga ezagutzen ez duen bati, zelan azaldu labur-labur?

Herri elkarte bat da Geredi-
ga, elkarte kulturala. Duran-
galdean bizimodu hobe bater-
alde lan egiten duena. Lehen-
goari begiratzen diogu; onda-
rea eta izaerari. Baina fun-
tsean, Durangaldea maite
dugulako egiten dugu lan. Eta
gure lanetan ezagunena
Durangoko Azoka bada ere,
eguneroko lana askoz zabala-
goa da. Urtaro bakoitzean,
ohiko ekintza batzuk ditugu,
baina hortik kanpora, kultu-
ran, historian, etnografian,

ikerketa munduan.. Geredia-
ga elkartearen erreferentzia nagusia da. Bertan aurkituko du edonork laguntza osoa edonoren eskura.

***Azokari ateak parez pare zabal-
tzen dizkiozue beti. Nobedadeak?***
Aipagarria da Kataluniar Herria. Euren kultura ezagutzeko aukera izango dugu. Orain arte urrutiago joan gara, eta aurrean urrun baina hurbil dauden kultura bi elkartu nahi izan ditugu: euskal kultura eta katalanena. Gauza askotan eredu dugun herria hemen

izango dugu, euren kulturaren ere murgiltzeko.

Gauza jakina da Azoka antolaztea lan nekeza dela...

Egia da, bai. Nik neuk ere Azokara hurbiltzen naizenean, lehen egunean, ateak parez pare zabaltu eta errespetuz begiratzen diot Azokari. Eta askotan pentsatzen dut: zenbat lan egin dugun! (barrez). Seguruenik kanpotik imajinatuko dute sekulako lan-taldea dagoela horren atzetik... eta bai, sekulako taldea dago, baina lagun gutxiren artean anto-

latzen da dena. Sorpresa izan daiteke kanpotar batentzat lau katu garela jakitea; esperientziaz eta emozioz josita. Bazkideen eta bertako langile eta batzordeen lana da guk egun horietan erakusten duguna. Lan talde txiki bat dela azpimarratuko nuke, baina kanpora begira eta irekita dagoen lan talde bat.

44 urteko eskarmentuaren ondoren, Azoka aldatuz joan da.

Desberdintasunak ugari eta sentimendua berbera. 65. urteko Azokan, aurrekontua 300 eurotara eta 20 bat standetara mugatzen zen... Gaur egun, 300 standetik gora batzen gara. Andra Marikoa, azoka txiki bat zen, eta oso maitatua. Egun azoka maitatua ere bada, baina baita azoka komertziala ere, eskolei zuzendutakoa, kolore anitzetako familientzako... Jakina, 44 urte hauek ez dira alferrik joan. Produktioak gora egin du, kalitateak ere bai... baina azken urteetan ahalegin berezia egin dugu modernizazioan, forma berriak ikertzen.

Gomendiorik bisitariantzat?

Aurten, bereziki, japoniar irakasle bat etorriko da gure Azokara, zer gomendatu? Erakuntza bera, nobedadeen bitrina, baina, batez ere, giroa, liburu eta diskoen ugaritasuna, Durango herria eta ingurunea. Sentimendu hori bizitzera animatuko nuke.

*Durangaldeak zer ematen dio
Azokari? Eta zer iaso du?*

Kokapen espezifikiko bat, erdigunean. Nire geografo senak esaten dit, baina frogatuta dago Durangaldeak kokapen itzela duela Euskal Herrian. Paisaiak, inguruak, herri izae-rak, distantziak... izugarri laguntzen diote Azokari. Bes-te leku batean, beste gauza bat izango litzateke. Durangaldea eta Durango bera aldatu egiten da Azokarekin batera. Bizimodua bera aldatu egiten da.

Zer amets du Gerediaga Elkarte-ko lehendakariak?

Ametsak asko. Baina nagusia, adin guztietako jendea nahasian ikustea. Bakoitza bere kabuz, iniziatiba propioz, sentibilitate berezi horrekin... Durangoko Azokara pozik etorriko den jendea batzea. Ziur nago horrek Azokari mesede egingo diola.

44 segundutan

Ordenagailuko pantailan duzun irudia
Orozketatik ateratako neguko argazki bat
Laneko mahai gainean ez da falta
Telefona

Azken urteetako argazki bat
 lazko kartelaren aurrean 4 emakume
Gerediagak emandako azken oparia
 Euskal Herriko Ardi-txakurren Saridunari **Ge-**
rediak jasotako azken oparia
 Bilboko *La Ría del Ocio* aldizkariak eman-
 dakoa, euskal kultura mundura zabaltze-
 rren. 2007an

Eskuartearen duzuen proiektua
Merinoaren ibilbidea. Durangaldeko historia izandako eraikuntza eta erakunde esanguratsuenetan zeharreko ibilbidea. Goiriariak Elorriora.

44.
DURANGOKO
USKAL LIBURU
TA DISKO AZOKA
 2009ko Abenduaren 4tik 8ra

**DURANGOKO AZOKA
ZURE ESKURA DAGO** =

CATALÀ&EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO + 4.000 m²

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA) X 44 URTE

Duranga Adhikari Adhikari

gerediaga
 with a touch

BFA
DFB

III Institut
ramon llull
Historia eta kultura batasunean



DURANGO
Chamber of Commerce and Industry



DEPARTMENT OF HEALTH AND HUMAN SERVICES
OFFICE OF THE ASSISTANT SECRETARY FOR PUBLIC AFFAIRS

bbk=

 Academy of Arts and Letters

LISA
CONSUMERS
LITERACY INITIATIVE, S.A.



KALITATE TURISTIKOA

"Ordena da kalitate sistema honek dakarren abantaila eta hobekuntza nagusia"

Leioako Ostalaritza Eskolan, kalitatea lanerako baldintza legez ulertzen dabe. Helburua bertako ikasle eta bezeroek be etorkizuna kalitatean oinarrituta eraikitzea da. Eskolako zuzendaria da Txemi Santamarina; 24 urte daroaz irakasle lanean, eta horreetatik azkeneko lau urteak zuzendari. Eskolako jantokian hartu gaitu.



Ikasleek kalitate sistema hurretik ezagutzen dabe Santamarinaren eskolan. M.O.

Zeintzuk izan ziren sistema honen alde apustua egiteko arrazoiak?

Orain urte batzuk kalitate sistemetan barneratu ginen: ISO9001 eta ISO14001 eskuratu genduzen. Kalitate turistikoaren Q-a irten zenean, bere alde egitea pentsatu genduen, baina ez jatetxe baten ikuspegitik; helburua ez zen bezeroak irabaztea. Eskola garen heinean, gure bezero eta ikasleek lan mundura jauzia egin aurretik sistema hori ezagutu eta barneratzea gura genduen.

Zer abantaila ekarri deusuek ziurtagiria edukitzeak?

Lan-taldea aldatu arren metodo egoki batek funtzionatzen segituko dauela jakitea. Izan be, lan estiloa ezarrita dago, eta berriren bat sartzean ereduari jarraitzea baino ez dauka. Eguneroko lan guztia ordenatzen da horrela: bezero bat datorrenean badakit nola atenditu, badakit zer instalazio ipini jangelan, badakit zelako jarraipena egin garbiketa prozesuari... Ordena hori da kalitate sistemaren

abantaila, baita emoten den hobekuntza nagusia be.

Bezeroek igartzen dabe sistemaren eragina?

Bai, zalantzarik barik. Izan be, modu honetara ez dozu ezer lotu barik izten; ez dozu inprobisatzen. Horrek segurtasuna emoten deus. Gainera, langileak be gustura geratzen dira, nahiz eta hasieran gatxa izan gauza barrietara moldatzea. Kalitate sistema lanerako erreferentzia da.

Kalitatezko sistema baten lan egiteko deia egingo zeunskie gainerako enpresariei...

Guztiei gomendatzen deusset metodo hau probatzea. Sukaldariok, askotan atzera egiten dogu papeleo asko ikusten dogunean, eta hain zuzen be horixe da prozesuaren hasieran ikusten dena; kostatu egiten dela ezin leiteke ukatu. Baina, luzera begira, hobekuntza igartzen da funtzionamenduan, eta merezi dauela pentsatzen dot. Alde batetik, bezeroak gustura sentitu eta erakartzeko modua da, eta, bestetik, barrura begira be zuzentzen den sistema da; oso garrantzitsua da langileak gustura sentitzea.

Aurrera begira hobekuntzarik egitea pentsatzen dozue?

Gaur egun, analisi eredu bat ezartzen gabilz: arriskuen eta kontrol kritikoen eremuen analisia, hain zuzen be. Bestalde, FQM kalitate sistemagaz be lanean gabilz. Honakoa Europa mailakoa da; sistema gorena dela esan leiteke. Hau ezartzean gelditu egingo garela uste dogu. Horretaz gainera, gainerako eskolen joera eta ildoak ezagutu behar doguz, eta Hezkuntza Sailetik jatorkuna be egokitu beharko dogu. Izan be, zentru publikoa garen, Hezkuntza Sailaren barruan gagoz kokatuta. Sail horretatik bideratzen diren plan estrategikoak eta abar oinarri moduan hartuko doguz.

Eusko Jaurlaritzak, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziagaz batera, eta Euskalit-egaz elkarlanean, enpresariari bere antolakundea lehiakorrako egiteko beharrezko dituen tresna eta laguntzak emoten deusoz, programa honeen bitartez:

PRAKTIKA ONAK: Kalitateagazko sentsibilizazio eta konpromisoa, aukeratutako destinuen sektore turistiko profesionali zuzenduta.

KALITATE TURISTIKOA: Kalitatezko kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen asebetetze eta aurreikuspenen betetzearen bermea.

EFQM BIKAINASUN MAILA: Kalitatezko bikaintasun maila proposatzen dauen programa.

**IPINI KALITATE
TURISTIKOAREN Q
ZURE
ESTABLEZIMENDUAN!**

**94 607 75 86
94 404 74 70**

**www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net**

ERITZIA[>]

Gutunak



Oskar: zu gabe hilabete bat

Atzo lanetik irten eta etxerako bidean, norabidea aldatu eta Leku-ra joan nintzen. Ni bakarrik, zuhaitzari begira, isiltasun osoz, zu gogoratuz, barre eta negar batera eginez.

Errudun baten bila buruari buelta asko emanaz, eta inongo erantzunik jaso gabe! Nori atera kontuak? Ezinezkoa da honi guztiari zergatia bilatzea! Makina zikin batek erahila!

Norbaitek erantzun beharko du istripu honetaz!

Lankideen segurtasunagatik beti borrokatu zenuen, baina oraingoan zeu joan zara.

Non zaude, Oskar? Orain nola jarraitu behar dugu aurrera zu barik? Gure “Peti”, geure “txikerra”... lagunok esaten genion bezala, irudiz desagertu, baina oraingo egunetan, hainbat momentu, zurekin bizi izan ditugunak, etortzen zaizkigu burura; denak alaiak eta zoragarriak.

Oraingo egunetan atondu dugu zure “Leku”-a gehien maite zenituen koloreekin, alde batetik zuri-gorria eta, bestetik, zure bihotzeko ama lurraren koloreekin.

Hain gogorra, hain injustua... Gure albotik aldendu zara eta guztion bihotz zatitxo bat eroan duzu zurekin batera.

Peti: zure barrea, zure momentuak, zure alaitasuna, inoiz ez ditugu ahaztuko! Beti gure bihotzean!

Eskerrik asko eman zenizkigun momentuengatik!

Amaia Huarte, koadrilakoen izenean

Txerri gripea edo... gripe txerria?

Artikulu bat idaztera noa. Gai polemikoa da, eta seguruenik labur gertuko naz, baina txarri gripeari buruz artikulu bat idatziko dot, jakinda inongo sinesgarritasunik bakoa izan leitekeela, gaur egun komunikabideetan agertzeko tituluduna edo zeozertan “aditua” izatea ezinbesteko aurrebaldintza dela emoten dau-eta. Nik, oraingoz, ez dot halako etiketarik; beraz, atxakia ona dozue hemen idatzitakoei jaramonik ez egiteko.

Aurreko astean astekari honetan A gripeari buruzko elkarrizketa bat irakurri neban, eta erdiari beti beste erdia falta jakola bururatu jatan. Armairura jo dot eta, kasualitatez, gripeei buruzko datu kurioesak topatu ditut. Esaterako, OMEk (Osasunaren Munduko Erakundeak) 2005eko irailean, Ginebran, hegazti gripez 7,4 milioi pertsona hil zeitekezela adierazi ebala leitu dot. Bushek, antza, urte bereko azaroan, Osasunaren Institutu Nazionala bisitatu eta AEBetan bakarrik 2 milioi pertsona hiltzea profetizatu eban. 2006ko uztailean, Espainian hegazti batengan lehen kasua topatu ei eben. Baina ba al dakizue zein izan zen Bushen gobernuak 2005ko azaroaren 2an hartutako neurria? Ba, 7.100 milioi dolarreko presupuestua egitea izurri hari aurre egiteko. Zenbaki potolo horretatik 1.200 milioi dolar 20 milioi txerto dosi sortzera bideratu ziren. Harrigarria, benetan. Baina, OMEren arabera, zenbat pertsona hil ziren AEBetan hegazti gripegaitik? Bat bera be ez. Eta, gaur egun, uso-pasarik ezean, inork ez dau hegaztiei buruz berba egiten.

Armairuko orriak eskuetan pilatzen hasi jataz, baita ahaztutako beste datu batzuk be.

1996an, Gilead Sciences konpainia farmazeutikoak Tamiflua (ezaguna egiten jatzue, ez?) patentatu eban gripe bat baino gehiagoren kontrako medikamentu gisa.

1997an Donald Rumsfeld konpainia honetako lehendakari izen-datu eben eta, urte horretan bertan, Suitzako laborategi multinazional batekin, Roche-rekin, akordio batera heldu ziren: Tamiflua fabrikatu eta banatuko eben 2016ra arte, eta, ordainetan, salmenta guztia-
ren %10eko komisinoa jaso.

Eta 2001ean, kasualitate hau be, Gilead Sciences-eko lehendakari-tza utzita, Bushen Defentsa Idazkari karguan jausi zen gure Donald.

Gaur egun, behinola sortutako Tamiflua eskutik eskura dabil, txarriak asko hazi ei dira-eta. Halan be, barriz jo dot orri tolestuotara, eta irakurri dot 2007an, Japonian, 14 gazte hil zirela Tamifluak eragindako garun-infekzioekin, eta, ondorioz, hango gobernuak medikamentua erretiratu egin ebala. Eta, hau guztia gitxi balitz, Justiziak dagoe-neko 25 hildakoren arduradun jo ei ditu txertoak.

Seguruenik jakingo dozue, baina 2009ko ekainaren 30ean, OMEren arabera, 382 hildako zegoen mundu osoan A gripegaitik. Gripe

komunak, ostera, mundu osoan milioi erdi pertsona hiltzen ditu urtean. 2 milioi hiltzen dira malariatz. Beste hainbeste beherakoagaz. Eta 10 milioi osatu leitekezen pneumonia eta elgorriagaz.

Baina arraroa da, ez? Zelan izan leiteke telebistan telenobelak asma-tzea honako istorioek edukiko leukien arrakastagaz? Nik badaukat azalpen bat, sinesteko gatxa dena, akaso: estamentuz osatutako gizarte-an gagoz egun, diruaren arabera gizarte estamentalean. OMEk erabakitzen dau izurria zer den eta zer ez. OME hau NBERen (Nazio Batuen Erakundea) osasun ministerioa baino ez da. Eta NBERen elitea batzen da, ez zu eta ni. Gero, pilota eskaileratan behera joaten da. OMEk estatutako ministerioei zer egin behar den esaten deutse. Eta estatutik osasun zerbitzu publikora heltzen da pilota, “adituz” jositako eremu jator eta hurbil horretara. Bai, eta gu, kaleko pertsona arruntok, azken eskailera horren azpian gagoz. Batzuetan ahaztu egiten jaku, eta ez dogu gora begiratu gura izaten. Horregaitik, “gure medikuak” dinoskuna egiten dogu, fidatzekoa baita!

Baina, behin aukera izanda, galdera bat egin gura neuskizue adi-tuoi: ba ete dakizue zein den txertoen konposizinoa? Esan egiguzue, mesedez, eta ez zaiteze lotsatu. Jakiteko eskubidea dogu egia ete den aluminioak, amoniako sulfatoak, merkurioak... gorputzari falta dituen bitaminak emoten deusiezen. Nik ez dakit, baina txertoak jartzen dozue-zenok jakin beharko zeunkie, ezta? Ezetz, bada, armairuko orri arte-an bila jarraituko dot, eta, niri behintzat, ez deustazue orratzik sartu-ko. Gurago dot anbulatorioko ate aurrean jesarrita uso-pasei itxaron.

Eñaut Uruburu Martinez - Abadiño

Elorrio, independenteak eta EHNE

EHAK (Elorrioko independenteak) argitaratzen duen *Elorrio hobetuz* aldizkariaren 11. alea irakurri berri dugu, eta harrituta eta hase-
rretuta gaudela esan beharrean gaude. Kontuak argi nahi ditugulako, ondorengo lerroak idaztea erabaki dugu. *Elorrio hobetuz* aldizkarian EHNE eta beste hainbat erakundek Elorrioko Hirigintza Plan Oroko-
rraren eztabaidan duela urte batzuk eginiko aportazioak modu gaiz-
toan erabiltzen direla adierazi nahi dugu.

EHNEko kide garen heinean, Elorrioko independenteek EHNE-
ren siglen erabilera egin dutela salatu nahi dugu, hain zuzen. Ez da zilegi hainbat sindikatu, alderdi politiko eta eragile sozialek elkarre-
kin izenpetutako dokumentua interes partikularretarako erabiltzea. Are gutxiago, alde aurretik horretaz informatzen ez baldin bada. Izan ere, *Elorrio hobetuz* aldizkarian EHNERen anagramaren erabilera mal-
tzurra egiten dela uste dugu.

Bakoitzak bere irakurketak egin eta aditzera emateko eskubidea du, noski, baina *Elorrio hobetuz* aldizkarian Durangaldeko Lurralde Zatikako Plana (PTP) eta Elorrioko Plangintza Orokorra nahastu dira. Bakoitzak jakingo du hori egin nahi duen edo ez, baina ez dugu onar-
tuko EHNERen izena interes politiko konkretuetarako erabiltzea. Eta horixe izan da, hain zuzen, Elorrioko independenteek euren aldizka-
rian egin dutena: EHNERen anagrama euren irakurketa partikularrak babesteko erabili.

Ez dakigu gurata edo gura barik egin duten, baina aurrerantzean horrelakorik ez errepikatzea exijitzen dugu, eta argi laga nahi dugu EHNEk ez dituela bere egiten *Elorrio hobetuz* aldizkariak urriko ale-
an eginiko adierazpienak.

Iñigo Etxebarria eta Unzalu Salterain. EHNEko kideak

Tenpleu, Jon

Ez dogu burua guztiz galdu oraindino. Irakurri be zer edo ha egiten dogu noizean behin. Dena dela, orain arteko idazkietan gure ikuspun-
tua argi itzi ez badogu, hortxe joatzu azalpena:

Begitu, Jon: dantza munduan andrazkook izan beharko geunken lekua baino ez dogu aldarrikatzen. Ez dogu gizonezkoen dantzak egi-
teko eskaririk luzatu. Ez dogu *Dantzari dantza* egiterik eskatu. Halan da ze, *Dantzari dantza* egin gura dogula-eta bolo-bolo dabilen kon-
tu horretan guk ez dogu parterik.

gutunak@anboto.org

Tradizinoa aitatzen danean, gogoratu andrazkoek dantzan egitea ez dela atzo goizekoa. Ez da feministen azken orduko akordua be. Irakurri dogunez, XVII.mendera arte, dantzak gizartearen erritoetan leku handia izan eben. Herriko dantzak ospetsuak ziren, denentzat zegoen lekua dantza arloan: mutilentzat, neskentzat, umeentzat, sasoikoentzat. XVIII. mendetik aurrera, oster, Eliza Katolikoaren mendekotasunagaitik, dantza zeremonia bihurtu eta zeremonia horretan mutilek hartu eben protagonismoa, taula gainean zein plazetan, eta, hortxe hasi zen andron bazterketa.

Halan da ze, andrak dantza egitearen tradizioa euren bazterketa baino be lehenagokoa da. Hari horri helduta eta gure eskualdeko dantza zaletasunari eutsi guran, pentsatzen dogu Dantzari Egunez gizonentzat zein andrazkoentzat zabalik egon beharko leukiela, gizonen txoko bihurtu barik.

Kontuak kontu, zapatuan Durangoko Andra Maria elizpean ikusi genduen dantza saioa aldarrikatzen dogunaren lekuko ederra izan zen. Egia esan, urteak dira horrelako egun bat Gerediaga elkarteari Kriskitinetik eskatu geuntsala, eta poztasunez ikusi genduen gure eskaria, bere osotasunean ez bazen be, errealitate bihurturik.

Zer naturalagorik gizonetzkoek eta andrazkook herriko plazetan elkarregaz dantzan egitea baino. Ez dozu uste? Tenpleu, ba, Jon, eskatzen doguna ez da-eta azken orduko burutazinoa. Zapatuko moduko Dantzari Egunak nahi doguz, diskriminazio bakoak; andra zein gizon, gazte zein sasoikooi irekiak. Konforme hago, Kristina?

Marisa Barrena- Durango

Klik batean @



Boletus erraldoia

Argazkian ikusgai dogun *boletus* itzel hau Xabier Gomezek topatu dau Durangaldean. Irudia emailaz bidali deuskunak ez dau zehaztu non topatu eben, beharbada, konpetentziaren beldur... Tortillak egiteko nahikoa behar izango dabe Xabierren etxean.

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker abertzalea

Abertzaleak

Ez dut oso gertu ideologikoki Xabier Arzalluz, hala ere, batzuetan tipo sinpatikoa egiten zait; akaso, oso zuzen berba egiten duelako. Utzita izan arren bere ardura politikoa, oraindik bere berbek badute garrantzia han eta hemen, eta ederto daki non, noiz eta zer esan dezakeen. Eta egin egiten du.

Gara egunkarian arestian esandakoaren haritik dator hau, non, besteak beste, Otegiaren, Rafa Diezen eta Miren Zabale-taren atxilotetei buruz aritzekoan, abertzaleak ez eze, abertzale onak direla dion: "Errespetua eta baita miresmena ere merezi duten abertzaleak".

Distantzia ideologikoen gainera, batzeko eta elkartzeko gaitasuna duten baloreez ari da Arzalluz, eta, kasu honetan, Euskal Herriaren aldeko borroka eta aberriarekiko dedikazioa, batzuetan den-dena ematerainokoa dena, dira EAJ-ko presidente ohiak goraipatu egiten dituen ezaugarriak.

Badabil Ezker Abertzalea prozesu politiko berria abiatzen, izan ere, aipatu atxilotetok berau oztopatu eta baldintzatzeke ote diren zalantza gutxi dago, bere helburuetako bat marko politiko berri baten aldeko indarrak biltzea eta hau gauzatu ahal izateko bide berriak jorratzea delarik. Honen oinarri herri honetan somatzen den gehiengo independentista benetako aldaketa sozial eta politiko baten aldeko eragile bihurtzea izanik.

Honek beharko luke izan abertzaleon topagunea, gure esparru politikoez gain, esparru nazional bat amankomunean daukagulako, eta hori da lehen-lehenik lortu eta defendatu behar duguna.

Horregatik, badira jada ehunka "abertzale on" preso. Euren ere, gure errespetu eta miresmen osoa merezi dute.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

 **anboto**
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko azaroaren 6a - 8. urtea - 350 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:		
	Abadiño	Elorrio	Mallabia
	Atxondo	Garai	Mañaria
	Berriz	Iurreta	Otxandio
	Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

AGENDA>

>ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Azaroaren 6an, 22:30ean

IRAKASLE ETA IKASLE

Ezagun egin leiteken istorioa dakar K Producciones-ek Elorriora: krisian dagoen eta irakaskuntzara bueltatu gura ez dauen irakasleak, eskolan erasoia jasan dauenak, ikasle bitxi bati bakarkako eskolak emotea onartu dau, eta horren amagaz sortutako hartu-emon bereziak bien iragana ez eze, bakotxaren beldurren zergaitiak argituko ditu. Gizarte zital baten gaixotasunean eta erokerian sakonduko dau *La charca inútil* obrak.

azaroko agenda

Azaroak 6 • Iurretako Herri Biblioteka
Ipuinkontalaria (Txomin Magdalena) 17:30 (3-4urte) / 18:00 (5urte) gora)

Azaroak 6-7-14 • Musikaldia 2009
6an 19:00 Concierto didactico "Schubert" Impromptu
7an 19:30 Iruñako "Tafelmusik Ensemble", Aita San Migel Parrokian. Mikel D. K. taldea
14an 19:30 Durangoko Bogoroditsie eta Bartolome Ertzila abesbatzak


Azaroak 7-8-14-15 • Iurretako Txirrindulari Elkarte
10:00 Irteera Iurretatik. Ibilbide ezberdinak

Azaroak 11-18 • Iurretako Herri Biblioteka
11an 18:00 / 18an 17:30 • Bularretik mintzora familiarentzat

Azaroak 14 • Anderebide
Irteera Iurretako Kofradietatik

Azaroak 17-18 • Iurretako Herri Biblioteka
17an 19:00 Irakurleen txokoa gaztelaraz
18an 19:00 Irakurleen txokoa euskeraz

Azaroaren 16tik 27ra • Pintura erakusketa
Iurretako Ignacio Ruiz de Arkaute. Ibarretxe kultur etxean



IURRETAKO UDALA



AZAROA

Azaroak 6

Abentura hitzaldia: Nikaragua Miren Amurizaren eskutik. Kultur etxea, 17:30.

Azaroak 7

Antzerkia: "Ni naiz Hector, ni bakarrik". Txalo konpainia. Kultur etxea, 22:00

Azaroak 8

Filmea: G-Force (umeentzat). Kultur etxea, 17:00

Azarok 13

Antzerkia: Teatre Nu (umeentzat). Kultur etxea, 17:30

Azaroak 14

Berdintasuneko I. Jardunaldiak: "Berdintasun kontseiluak". Kultur etxea, 11:00

Azaroak 15

Filmea: Millennium 1 (helduentzat). Kultur etxea, 19:00

Azaroak 19

Jardunaldia: "Jarrera bortitzak dituzten gaztetxoak". Kultur etxea, goizez.

Azaroak 20

Antzerkia: "El club de las mujeres invisibles". K.E., 22:00

Azaroak 21

Musika: Etxeren disko berria: "Heldu eskutik". K.E., 22:00

Azaroak 22

Filmea: "Vicky Vikingoa". Kultur etxea, 17:00

Azaroak 25

Kontzentrazioa: "Emakumeen kontrako indarkeriarik ez!". Urtiaga plazan, 19:00.

Azaroak 27

Antzerkia: "Euskarazetamol". Kultur etxea, 22:00

Azaroak 28

Kantu-afaria: Jon Enbeitaren eskutik. 22:00

Azaroak 29

• Kale ikuskizuna: "Kori, Xalto eta Brinko". Olakueta, 12:30
• Filmea: "Sukalde kontuak". Gonbidatua: Aizpea Goenaga. Kultur etxea, 19:00

Erakusketa

6tik 22ra, Jabier Gorosarriren margoak eta grabatuak.

ANTZERKIA

BERRIZ

» 'Ni naiz Hector, ni bakarrik' (Txalo), azaroaren 7an, 22:00etan, Kultur Etxean.



DURANGO

» 'Diktat' (611 Teatro-Madrid), azaroaren 7an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.



ELORRIO

» 'La charca inútil' (K Producciones), azaroaren 6an, 22:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA

» 'Aitarekin bidaian' (Hika Teatro), azaroaren 6an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



» 'Sesamo ireki zaitez' (Caleidoscopio Teatro), azaroaren 7an, 18:00etan, Zornotza Aretoan.

BERBALDIA

ABADIÑO

» Sexualitatea eta emakumea: 'Sexualidad en la madurez', azaroaren 11n, 18:00etan, Errota kultur etxean. Hiru egun aurretik eskatuta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe (94 681 87 74).

BERRIZ

» Abentura Hilabetea: 'Nikaragua' (Miren Amuriza), azaroaren 6an, 19:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

» Palestina-Euskal Herria. Elkartasun bideak: 'Checkpoint Rock' (Fermin Muguruza&Javier Corcuera) ikus-entzuneak, azaroaren 6an, 19:00etan. Ondoren, **berbaldia**. Plateruena kafe antzokian. **Kontzertua: DAM (Palestina-hip hop) + Bad Sound System (EH)**, 22:00etan.

» 'Pekatua-krimena eta penitentzia-zigorra Erdi Aroan, literatura eta artearen bitartez' Krimenaren Historiaren Zentroaren VII. Mahai-inguruak. Azaroaren 6an, egun osoz, Arte eta Historia Museon.

BESTEAK

DURANGO

» Kontuleku, abenduaren 19a artean, zapaturo, Udal Liburutegian: 11:00etan (0-3 urte) eta 12:30ean (4-6 urte). Bibliotekan emon leiteke izena (94 603 00 41 / liburutegia@durango-udala.net).

» Txiri-Txiri taldearen 10. Urteurren Jaialdia, azaroaren 7an, Plateruenean. **Bazkaltzeko** batuko dira eta 18:30ean, **Luhartz taldeagaz erromeria** hasiko da.

ERMUA

» Gazteñerre Eguna: **gaztainak, afari autogestionatua eta musika**, azaroaren 9an, 19:30ean, Errekena elkartearen. AEK Kaltxangok eratuta.

IURRETA

» Kofradietatik XXI. Ibilbidea (MTB), azaroaren 8an, 10:00etan. Iurreta Txirrindulari Elkarteak eratuta.

ZORNOTZA

» 'Amaigabeko lurraldea': Estatuko Mahai Jokoen V. Topaketa, azaroaren 6, 7 eta 8an, 10:00etatik 20:00etara, Zelaieta zentroan.



» **Gazte Diskoteka (11-17 urte)**, azaroaren 7an, 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta Zentroan.

» **Zu Zeuk: Drogomenpekotasun aholkularitza**, azaroaren 7an, 18:00etatik 19:00etara, Gazte Diskotekan; 20:00etatik 23:00etara, **Zex: Sexu aholkularitza**.

DEIAK

DURANGO

» **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andereak elkarteak).

» **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaile elkarteak deituta.

» **Tabirako andren 22. topaketa**, azaroaren 8an. Meza, 12:30ean, Santa Ana elizan, eta bazkaria Gran Hotel Durangon (94 681 13 25).

IURRETA

» **Igerilekuetako, euskarazko, Udako Euskal Unibertsitateko eta musika ikastaroetarako diru-laguntzak**

eskatzeko, abenduaren 4a arte, Ibarretxe kultur etxean. Baita **igerilekuetako abonuetarako** be (94 620 03 42).

ERAKUSKETA

BERRIZ

» **Margoak eta grabatuak. Javier Gorosarri**. Azaroaren 6tik 29a bitartean, Kultur Etxean.

DURANGO

» 'Lekuak'. Amaia Alonso **durangarraren lanak**. Azaroaren 30a bitartean, Andragunean.

ELORRIO

» 'Basoaren azala'. Argazkiak. Iturri kultur etxean.

IURRETA

» **România. Munduko paisaiak: Errumaniari buruzko erakusketa**, azaroaren 6a bitartean, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA

» 'Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioan' (Eusko Ikaskuntza), azaroaren 16a bitartean, Zelaieta zentroan. 'Tras un largo silencio' dokumentala (Sabin Egileor-Aranzadi Zientzia elkarteak), azaroaren 11n, 19:30ean.

IKASTAROAK

BERRIZ

» **Guraso Eskola: 'Internet bizirik, afaria hotz'**, azaroaren 5ean eta 12an, 18:00etatik 20:00etara, DBH zentroan. Gizarte Zerbitzuen eskutik eratuta. Izena emoteko urriaren 30a arte, Udaletxean (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

» 'Dependentziari aurre egin', azaroaren 4, 11 eta 18an, 17:00etan, Jubilatuen Etxean.

DURANGALDEA

» **Berbalagun**, Durango, Elorrio, Zaldibar eta Berriren (639 400 786 / durangaldea@aek.org)



DURANGO

» **Euskal Dantzak**. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, AIKO taldearen eskutik, Plateruenean.

» 'Aukera berdintasunari eta feminismoari buruz, hitz egiteko

prest?, astelehenetan, 18:30etik 20:00etara, Andragunean.
‘Emakumeak eta euskal literatura’, eguenetan, 10:00etatik 12:00etara (94 465 70 92/ andragunea@durango-udala.net).

ELORRIO

- » **Emakume eskola: Sexualitatea (Saioa Hernández)**. Azaroaren 2, 16, 23 eta 30ean, 18:00etatik 20:00etara.
- » **Dantza modernoa, sabel-dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak**. Iturrin (94 603 20 32).

IURRETA

- » **‘Bularretik mintzora’**: azaroaren 11n, 18:00etan, **familiarendako (Yolanda Arrieta)**, Liburutegian (94 681 27 26/ biblioteka@iurreta.net).
- » **‘Gure Barik’ bertso eskola**. Barikuro, 18:00etan (12-18 urte) Eguenero, 20:30ean, (18 urtetik gora). Gazte Asanbladak eratuta.

OTXANDIO

- » **Yoga, gimnastika eta pilates**, azaroan hasita. Emon leiteke izena (administrazioa.otxandio@bizkaia.org / 945 45 05 03 / 945 45 00 20).

IPUINAK

ERMUA

- » **Iñaki Carreto ipuin kontalaria**, azaroaren 7an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

IURRETA

- » **Txomin Magdalena ipuin kontalaria**, azaroaren 6an, Herri Bibliotekan: 17:30ean (3 urtetik gora); 18:00etan (5 urtetik gora).

LEHIAKETA

BERRIZ

- » **I. Eskultura Lehiaketa**. Proiektua aurkezteko azaroaren 2tik 27a arte, Kultur Etxean. Saria: 18.000 euro (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGALDEA

- » **XV. San Andres Bertso Paper Lehiaketa**. Azken eguna gaur: Urkizu 11, solairuartera. 20600-Eibar. ... eta kitto! euskara elkarteak antolatuta (elkartea@etakitto.com).

LITERATURA

IURRETA

- » **Munduko emakumeen literatur tailerra**. Astelehenero, 18:15ean, Udal Liburutegian.

MUSIKA

ABADIÑO

- » **Orquesta Cambra de L'Emporda**. Azaroaren 7an, 20:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO

- » **‘Kantuaren Kantoia’ berbaldi musikatua: Txuma Murugarren**. Azaroaren 12an, 20:00etan, Plateruenean.

ELORRIO

- » **Arriolako XX. Jazz Blues Jaialdia: Mina Agossi Trío (Jazz-Frantzia)**, azaroaren 12an, 22:00etan, Ateneoan.

ERMUA

- » **‘Internet kafe’**, **Mikel Urdangarin & Kirmen Uribe**, azaroaren 6an 22:15ean, Lobianon.

IURRETA

- » **Musikaldia: ‘Schubert’ (Impromptu)**, azaroaren 6an, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.
- » **Musikaldia: Tafelmusik Ensemble**

(Iruña), azaroaren 7an, 19:30ean, Aita San Migel elizan.

ZINEKLUBA

ABADIÑO

- » **Umeendako zinema: ‘Robots’**, azaroaren 6an, 18:30ean, Txanporta kultur etxean.

BERRIZ

- » **Familiarendako zinema**, azaroaren 8an, 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

- » **‘Gigante’**, azaroaren 12an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ZORNOTZA

- » **‘Paranoid Park’**, azaroaren 10ean, 20:00etan, Zornotza Aretoan.



Azaroaren 12an, 22:00etan

MINA AGOSI, JAZZ GARAIKIDEAREN ERAKUSLE NAGUSIETAKOA ELORRION

Jazz garaikidearen figura nagusietako batek zabalduko dau, aurten, Arriolako XX. Jazz Blues Jaialdia: Mina Agossi. Erritmo afrikarretan eta New Orleansko bluesik onenean errotutako artistak, Eric Jacot (kontrabaxua) eta Ichiro Onoe (bateria, perkusinoa) izango ditu lagun, eta, ohi legez, inprobisazioari be lekua eginnez, bere ahotsak hartuko dau protagonismoa Ateneoan eskainiko dauen kontzertuan. Estilo pertsonala garatu dauen abeslari bikaina da Agossi, eta gaur egungo interpretatzailerik onenen artean dago.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Julie y Julia
Zuzendaria: **Nora Ephron**
barikua 6: 19:00 / 22:00
zapatua 7: 19:30 / 22:30
domeka 8: 19:30 / 22:30
astelehena 9: 19:00 / 22:00
martitzena 10: 20:00



Umeendako zinema

Toy Story (3D)
zapatua 7: 17:00
domeka 8: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia
Agora
Zuzendaria: **Alejandro Amenabar**
zapatua 7: 22:30
domeka 8: 20:00
astelehena 9: 20:00



Umeendako zinema

Pequeños invasores
domeka 8: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa
Destino: Woodstock
Zuzendaria: **Ang Lee**
zapatua 7: 22:30
domeka 8: 20:00
astelehena 9: 20:00



Umeendako zinema

Ice Age 3: El origen de los dinosaurios
domeka 8: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 6
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
Zapatua, 7
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / Sagastizabal / San Roma / De Diego / Unamunzaga / Balenziaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)*
Domeka, 8
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
Astelehena, 9
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Martitzena, 10
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Eguaztena, 11
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Eguena, 12
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour.....946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

14° 14° BARIKUA
Giro euritsua itxaroten dogu. Fronte barri bat pasatuko da eta euria ekarriko dau. Haizeak atsedean hartuko dau; egunaren lehenengo partean ahulago ibiliko da, arratsaldetik aurrera indartuz.

8° 16° ZAPATUA
Euria etengabe egingo dau, baina ugariagoa izango da egunaren bigarren partean. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da, eta tenperaturak barikuan irabazitakoa galdu egingo dau.

8° 11° DOMEKA

4° 10° ASTELEHENA

14° 15° MARTITZENA

durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

anboto
komunikabideak



durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu
94 623 25 23 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

KIROLAK >



Durangalde Racing Elkarte

Ikuskizuna berriro Muniketan gora

Durango bilgune dutela, bihar, III. Balcón de Bizkaia korrituko dute Euskal Herriko pilotu onenek. Gaur arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara, egiaztapen probak egingo dituzte Landako Erakustazokan. Bihar, Montecalvotik Elgetarainoko lasterketa korrituko dute, lau tramutan banatuta: guztira, ia 60 kilometro osatu beharko dituzte gidarie parte-hartzaileek.

Lau tramuak honako hauek dira: Muniketako igoera (6,5 kilometro), Maumakoa (9,6 km), Elegetakoa (4,7 km) eta San Asentziokoa (8,1 km). Tramu bakoitza birritan egingo dute.

Lehenengo igoera, Muniketako igoera, 09:00etan hasiko dute, Artatzarako bidegurutzea dagoen inguruan. Ondoren, 09:23an, Maumako tramuari ekingo diote. Arriaundin kokatu-

tako laguntza-gunetik sartu-irtena eginda, 11:20an, tramuak bigarrenaz osatuko dituzte. Arratsaldeko saioak — Elorriotik pasako da— 15:00etan hasiko dira. Sari banaketa 21:00etan egingo dute, Andra Mariko elizpean.

Biharko lasterketa, besteak beste, Euskadiko Rally Txapelketarako puntuagarria da. Beraz, txapelketa horretan

Vilariño, Apalantza, Alustiza... onenak batuko dira Balcón de Bizkaia rallyan

dabiltzan pilotu gehienak etorriko dira Durangora. Faboritoen zerrendan hainbat izen dago. Ander Vilariñok (igoeretan Europako Txapelduna izana) irabazteko aukera handiak ditu, Subaru Impreza WRCagaz. Ramon Apalantza ere aurrean ibiliko da, Mitsubishi WRCaren bolantean. Aitor Barrueta ere Mitsubishiagaz ariko da, baina ez da World Rally Car-a. Iñigo Alustizak Euskadiko Rallyen Txapelketako lehenengo lasterketa irabazi zuen Lekunberrin, eta orduan lortutako abantaila handitzen saiatuko da, BMW M3agaz.

Durangaldeko pilotuek ere badute zeresanik. Lebeitik, betiko legez, borroka eta ikuskizuna ziurtatzen ditu. Iban Tarsicioren (Ford Escort Cosworth) eta Iñigo Olabegogeaskoetxearen (BMW M3) jardunak ere bertatik bertara jarraitzekoa izango dira. ■ J.D.

24 Eneko Perosanz, Frontisegaz

Berrizko pilotari gazteak (19 urte) urte biko kontratua sinatu du Frontis enpresagaz. Gaur, 20:00etan, Berrizko pilotalekuan jokatu du debuteko partidua.

25 Zulotik irteteko, garaipena behar

Sasikoak ez du ondo hasi denboraldia. Puntu bakarragaz, azken postuan dago sailkapenean. Etzi, Burladesen kontra, garaipena behar du zulotik irten eta arnasa hartzeko.



Gaur debutatuko dau Eneko Perosanz 19 urteko gazteak, Berrizko pilotalekuan. Iban Gorriti

“Profesionaletan jokatzeari denen ametsa da”

Berrizko pilota harrobi oparoko adibiderik barriena dogu Eneko Perosanz. 19 urteko atzelariak profesionaletako kontratua sinatu dau Frontisegaz, datozen urte bietarako. Gaur debutatuko dau, Berrizen bertan. Amantegigaz bikotea osatuz, Urdanizen eta Mitxelenaren kontra jokatuko dau.

Zelan jakinarazi eutsun Frontisek bere interesa?

Orain aste bi telefonoz deitu eusten. Sorpresa izan zen niretzat. Egunean bertan Berrizera etorri ziren. Pentsatzeko denbora apur bat eskatu neutsen, baina baiezkoa emon neban. Profesional mailan jokatzeari denon ametsa izaten da. Orain horretarako aukera emon deuste, eta aprobeztatzen saiatuko naz.

Ez zen pasatzen izteko moduko aukera.

Jenteak esaten eustan ez ete dodan enpresa handiagotara — Aspe edo Asegare — joateko esperantzarik, baina errazago ikusten dot hareetarako saltoa Frontisetik, afizionatu mailatik baino. Frontisen serioago jardungo dot, beste maila bateko eskakizuna suposatzen dau-eta.

Aurrekariak badagoz. Aritz Lasa Frontisetik fitxatu eban Aspe.

Halantxe da. Frontisen ez eban txapelketa bakar bat irabazi, eta begira orain non dagoen. Horrek esan gura dau Frontisen be pilotari onak dagozela.

“Enpresa handiagorako saltoa errazago ikusten dot Frontisetik”

“Entrenamenduak eta ikasketak bateratzeko aukera daukat”

Zelan joan dira orain arteko entrenamenduak?

Oso ondo. Esaterako, Iker Huetegaz entrenatu neban Larrabetzun, eta oso gustura ibili nintzen. Pilotetan igarri neban alderik handiena. Afizionatuetan arinagoak dira. Entrenamenduak be askoz serioagoak dira. Berrizen lau-bost pilotari batzen ginen, eta binada jokatzen genduen; hori zen dena. Frontisen Karmelo Ariznabarreta eta Iker Amarika hantxe egoten dira, egindako hutsak zuzentzeko.

Gainera, hemendik aurrera Traña-Matienako pilotalekuan entrenatuko dogu martitzenero. Izan be, lau bizkaitarretatik bi abadiñarrak dira: Antxia eta Amantegi. Neuri be nahiko gertu geratzen jat pilotalekua.

Ezagutzen dozuz Ander Antxia eta Egoitz Amantegi?

Bizkaian denok elkar ezagutzen dogu, gitxi gorabehera. Afizionatuetan zebilzenean, euren aurretik jokatu ohi neban. Kanean ikusten badituz, berbetan gertzen gara. Orain lankide izango ditudala da aldaketa bakarra.

Unai Zamalloa
• Saskibaloia entrenatzailea



Gaztetxoeren txanda

Adituarentxokoa

“Umeek ez dabe jolasten jendea entretenitzeko, ezta garaile izateko be; umeek ondo pasatzeko eta kirolaren bitartez hezitzen joateko jolasten dabe. Ez egizu hori inoiz ahaztu!” Hau da Eskola Kiroleko ikusle onaren dekalogoko hasierako artikulua, eta denboraldi berri honen hasieran gogora ekarri izan gura dot.

Asteburu honetan hasten dira gaztetxoeren artean txapelketa ugariak eskola kirolean. Mila neska-mutikok parte hartuko dabe, eta gure eskualdea be partaide bizia eta garrantzitsua dogu. Durangon bakarrik, guztira, 38 talde daukaguz: 23 talde neskenak, eta 15 mutilenak.

Beraz, hasieran aipatutako goiburua kontutan harturik, goazen denok helburu hori lortzen saiatzera. Orain hasten direnek gozatu eta kirolaren bitartez hezitzen joan behar dabe, eta hasita dagoenak hezitzen eta egunero hobetzen jarraitu behar dabe. Beraz, entrenatzaileon lana ez eze gurasoen eta jokalariren inguruko guztion lana be bada. Beraz, animo eta gozatu, eta gogor entrenatu! Eraitza onak lana gogoz eginda etorriko dira-eta. Eta gogoratu eraitzak ez direla partiduak irabaztea bakarrik, eguneroko hobekuntza eta taldearen hobekuntzaren ondorioa direlako.

Hemen da, beraz, gaztetxoeren txanda. Ilusioa, nerbioak, gogo... kottelaren osagaiak. Ez daiguzen umearen bizipen horreek gure nabarmentasan gurarian ito!

Bilbon Kirol Modulua ikasten zabilz, eta zure asmoa pilota ikasketekin partekatzea da.

Entrenamenduak goizez dira eta klaseak arratsalde. Beraz, biak bateratzeko ez dago arazorik. Lehenengo eta behin, ezeren aurretik, ikasketak dagoz, eta gero pilota eta gainerakoak. Nire kasuan bietan ibiltzea posible dot, beraz askoz be hobeto.

Frontiseko pilotarien janzkera berezia da. Praka piratekin jokatzen dabe.

Oraintsu kendu ditue. Egia esanda, nik gurago ditut betiko praka zuri luzeak.

Gaur debutatuko dozu, Berrizen.

Etxean debutatzea polita da. Denak inguruan edukita ezin neban beste herririk aukeratu! Ea egun polita bizitzen dogun.

Berrizko pilota harrobia oparoa da. Non dago sekretua?

Ez dago sekreturik. Zaletasun handia dagoela: horixe sekretua. Gaztetxoak frontoira joaten dira pilotan jokatzen; honeek euren lagunak ekartzen ditue, eta ondo pasatzen dabe eta gustua hartzen deusie frontoira joateari. Entrenatzaileek be badaukie meritua. Ni gaztetxoa nintzenen Felix eta Juanito Urizarri ziren entrenatzaileak; egunero joaten ginen frontoira eta egunero ibiltzen ginen pilotan.

Beharbada egin beharreko azterketa beste bat da. Inguruko herriek zergatik ez daukien hainbesteko harrobirik.

Afizino kontua da, batez be. Gaztetxo bat pilotalekuan bakarrik badabil, nekez zaleetako da. Ikasteaz batera dibertitu egin behar dau. Nagusiei begira be asko ikasten da. Harek egiten dabena praktikatzen dozu, hari eta irten arte; horrek motibatu egiten dau. ■ J.D.

“Ikasi eta gozatu egin behar dabe gaztetxoek; bestela ez dira zaleetuko”

Zure jokamoldea eta dohainak aztertuz, non ikusten dozu hobetu beharra?

Ezkerra landu behar dot. Ezker-razaz pilota asko galtzen ditut, eta alde horretatik badago lan apur bat egiteko. Profesionalen partiduak eutsi beharra egoten da sarritan. Galtzailea izanda, gatxa da partiduak irabaztea.

Zer helburu ipini deusue hasiera honetan?

Partiduak orain arte jokatu ditudan baino luzeagoak eta gogorragoak izango dira. Beraz, lehenengo helburua mailara moldatzea da; partiduak jokatuz, konfiantza hartzea.

Lesioek eta eraginkortasun ezak sufritzera kondenatu dute Sasikoa

Puntu bakarrarekin, azken daude; irabazteko “antsietate” apur bat dutela onartu dute



Orain arte 15 gol sartu ditu Durangoko taldeak, eta 24 sartu dizkiote. Judit Fernandez

Ohorezko A Mailara bueltan, Sasikoak bazekien mailari eus-teko sufritzea tokatuko zitzaiola. Jokalariek argi zuten azken par-tiduko hondarreko minuturaino borrokatu beharko zutela. Hala ere, uste baino uzta urriagoa batu dute liga hasieran. Puntu bakarrarekin azkeneko tokian daude, Donostiako Zuzenbide-rekin batera.

Liga hasiera txarraren arra-zoiek lesioetan dute sorburua. Taldeko oinarri den hainbat jokalarik ezin izan du jokatu par-

Hasieratik jokatu ohi duten hainbat jokalarik lesionatuta daude, eta ezin dute jokatu

tidu askotan. Aitor Olivares, hiru astean taldetik kanpora egon ondoren, asteburu honetan itzuli daiteke. Txopik belauneko arazoak ditu denboraldi hasieratik; Borjari 15 eguneko atsedena hartzeko gomendatu diote, orkatila behar moduan erreku-peratu dezan; Xabi Goitia ere ez da astebururako osatuko.

Hauen hutsunea bigarren taldeko jokalariek bete dute, “ondo bete ere”, Aitor Olivaresen hitzetan. Baloia ondo mugitu eta aukerak sortu dituzte, “aurkariek

sailkapenean hain behean zelan gauden galdetzeraino”. Baina falta direnek erosi ezin daiteke-en dohaina daukate: eraginkor-tasuna. Borja kalitateko jokala-ria da, eta gutxien espero dene-an atera dezake goleko pasea. Txopi, aldiz, errematatzaile petoa da; gola sartzeko aukera gutxi behar dituen horietakoa. Antze-rakoa gertatzen da defentsa lanean ere.

Horrek guztiak, jokoa emai-tzetan islatzeko ezintasunak, “antsietatea” sortu du taldean: “Gola sartzen digutenean, ‘hasi gara betiko martxan’ pentsatu, eta behea jotzen dugu. Despis-teekin hasten gara, eta maila honetan minutu batean partidua galdu zenezake”. Egoerari buelta

A.Olivares: “Lehen garaipena lortu behar dugu, antsietatea behingoz baztertzeko”

emateko sendagaia garaipena da: “Lehen garaipena lortu behar dugu, nola edo hala. Hori lortuta, taldea lasaitu egingo dela eta emaitzak iritsiko direla uste dut”, dio Olivaresek.

Domekan Burladesen kon-tra jokatuko dute. Burlades sail-kapeneko erdialdean dago, eta azkeneko partiduan 10-4 jipoitu zuen Donostiako taldea. ■ J.D.

Kurutziagak eta Kulturalak bikain hasi dute liga

Emakumeen areto futboleant liga ezin hobeto hasi dute Kurutziagak eta Durangoko Kulturalak. Kurutziaga talde sortu berria da, baina ez zaio nabari. Orain arte jokatutako bost partiduetatik lau irabazi ditu; 32 gol sartu eta hiru jaso dituzte. Orain arteko porrot bakarra etxean jasan dute, Getxoren aurka (0-1).

Durangoko Kulturalak, jokatutako lau jardunaldietan, hirun batu ditu puntuak. Denak irabazi ditu. 24 gol sartu eta bi besterik ez dizkiote egin.

Asteburuan lehia gogorrak dituzte biek ala biek. Kurutziagak Stilo Berrio A bigarren sailkatua jasoko du etxean. Durangoko Kulturalak, berriaz, bosgarren dagoen Soloarte bisitatuko du domekan. ■ J.D.

Kurutziagak bostetik lau irabazi ditu; Kulturala orain arteko denetan gailendu da

Mendi Astea antolatu du Erdellak Elorrion

Astelehenetik barikura bitartean Mendi Astea antolatu du Erdella mendizale taldeak. Egitarauan aurreikusitako emanaldiak 19:30ean hasiko dira, Iturri kultur etxeko areto nagusian.

Astelehenean Jonatan Larrañaga alpinista izotzaren gaineko eskaladari buruz ariko


Astelehenean Jonatan Larrañagak izotz eskalada izango du hizpide, Iturrin

da. Larrañagaren lorpen ugarrien artean dago Eigerreko iparraldeko paretaz egazuna 15 orduan igotzea.

Martitzenean, Eguaztenean eta eguenean lau dokumental ikusi ahaliko dira: Alberto Urta-sunen *Vida entre la estrellas*, Txikiren *Huayna -Potosi* eta Melendez, eta Leire Agirreren *El espíritu de una pasión*. Barikuan Iñaki Arenazak eta Amaia Etxebarriak Madagaskarrera egindako bidaiaren gaineko lana eskainiko dute. ■ J.D.

SAILKAPENAK >

Futbola /3. maila / 4.taldeak / gizonak		Saskibaloia / 1.maila / Euskadi/ gizonak	Saskibaloia / 1.maila / Euskadi/ emakumeak
1- Real Sociedad B...27	15- Elgoibar.....14	1- Bidegintza4 (+29)	1- Ardoi5 (+134)
2- Beasain.....24	16- Lagun Onak.....13	2- Seky.es4 (+20)	2- Cafés Aitona5(+80)
3- Amorebieta.....23	17- Santurtzi12	3- Baskonia Fund3 .(+32)	3- Bera Bera5 (+34)
4- Amurrio.....22	18- Retuerto11	4- Easo3(+3)	4- Obenasa5 (+29)
5- Zalla.....22	19- Eibar.....10	5- San Ignacio3(-7)	5- Las Gaunas ...5 (+21)
6- Gernika.....18	20- Salvatierra.....6	6- Zomotza2(+2)	6- Gernika4 (+72)
7- Aretxabaleta.....18		7- Legarzia2(-3)	7- Deusto-Loiola ...4 (+62)
8- Zamudio.....17		8- Tabirako2(-11)	8- Elexalde4 (+5)
9- Baskonia.....17		9- Padura1(-16)	9- Tabirako3 (+43)
10- Kulturala15		10- Bide Bide1(-49)	10- Abaroa2 (-2)
11- Leioa.....15			11- Arabako EHU ...2 (-55)
12- Arenas15			12- Getxo2 (-76)
13- Laudio.....14			13- Artieda1 (-71)
14- Portugalete.....14			14- San Ignacio1 (-94)
			15- Atletico SN0 (-78)
			16- Irlandesas ...0 (-104)



Durangoko Kulturalak 17 gol sartu eta 16 jaso ditu hamaika jardunalditan

Agenda

FUTBOLA
OHOREZKO MAILA
Kulturala - Aretxabaleta
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
LEHEN ERREGIONALA
(gizonak)
Zaldia - Errigoliti
Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian
Iurretako - Urduliz
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain
HIRUGARREN ERREGIONALA
Berriz B - Lekeltio B
Domekan, 11:30ean, Berrizburun
Elorrio B - Derio B
Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden
BIGARREN ERREGIONALA
(emakumeak)
Elorrio - Bizkerre B
Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

ARETO FUTBOLA NAZIONAL A MAILA
Sasikoa - Burlades
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian
EUSKAL LIGA
Kurutziaga - Ortziri
Zapatuan, 18:00etan, Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA
Elorrioko Buskantza B - Presion Break
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian
Abadiñoako Lagun - Hegalariak
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun
BIGARREN ERREGIONALA
Kurutziaga B - Beseka
Domekan, 10:30ean, Landako kiroldegian

SASKIBALOIA
LEHENENGO MAILA
(gizonak)
Tabirako - Bide Bide
Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian
LEHENENGO MAILA
(emakumeak)
Tabirako - Las Gaunas
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA
Tabirako - Zaldia
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian
Anbotopeko - Congelados Picazo
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Durango Ilarduya - Getxo Artea
Zapatuan, 16:00etan, Arripausetan

PILOTA
XXII. OLAZAR TXAPELKETA
Lau t'erdian:
Azpiri (Elorrio) - Albizu (Gipuzkoa)
Binaka:
Gorka-Merino / Renobales-Gorrotxategi
Eguenean, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan

TXIRRINDULARITZA
KOFRADETAKO IBILALDIA
Domekan, 10:00etan, Iurretako plazan. Izen-ematea: lizentziadunak **12 euro**; lizentziagabeak **28 euro** (eguneko aseguruagaitik). Ibilbide bi: 28 eta 40 km-koak. Antolatzailea: Iurretako Txirrindulari Elkarte.

LAUHANKA[>]

Uraren tenperatura epela izan behar da: ez hotzegi ez beroegi; 30 graduren bueltan egoki legoke

Katua garbitzeko ez da erabili behar pertsonentzako xaboirik

Katua ondo sikatzen ez badogu, azkurak eta antzekoak sortu geinkioz

Katuaren bainua: lehen aldiko gorabeherak

Katua bainatzeko lehenengo eguna konplikatua izan leiteke jabearentzat

Berez erraza emoten dauen kontua, gatxa bihurtu leiteke askotan. Horixe bera gertatzen da katua garbitu behar dogunean: ohituta ez badago, eginkizun konplikatua izango da katuari bainua emotea. Segururik, sahiesten saiatuko da.

Dena dela, aipatu beharrekoa da garbiketa hau gitxitan egin beharrekoa dela. Izan be, katua eguneroko bizimoduan bere kabuz garbitzen den animalia da. Garbiketa sendoa behar dauela uste dogunean sartuko dogu ur eta xaboi artean. Bestela, egoera normalean, nahikoa izan ohi da eskuilagaz errepaso on bat emotea. Modu horretara, mantuan pilatzen jakon zikina kendu geinkio, eta katuarentzat onuragarriagoa izango da.

Baina, kasu batzuetan ezinbestekoa izango da katua bai-

natzea. Horretarako, makina bat erizpideren jakinaren gainean egotea garrantzitsua da.

Tenperatura

Bainua egingo dogun gela epel egon behar da, aire korronterik barik. Uraren tenperatura kontuan izatekoa da: epela, ezinbestean; ez hotzegi ez beroegi, 30 graduren bueltan egoki legoke.

Iturriaren emaria kontrolatu egin behar dogu intentsitate aldetik. Orekatua izango da emaria, eta sekula ez da norabidetuko animalia begi eta belarrietara.

Xaboa

Behin ondo bustita dagoela, xaboa emoteko unera pasatuko gara. Kontu handiz igurtziko dogu, alderik alde, 5 minutu inguruan.

Garbiketa honetan ez da erabili behar pertsonentzako txanpurik, ezta ile-egokitzaile edo leungarrik be. Katuentzako beren beregi eginiko xaboiak dira onenak.

Sikatzea

Xaboi artean egon ondoren, ur asko erabiliko dogu arrastoak kentzeko. Hau ez bada ondo egiten, azkurak eta antzekoak sortu leitekez. Sikatzeko fasean murgilduko gara gero; lehenengo, toallekin umeltasun guztia kentzen saiatuko gara, eta, bigarrenik, lehorgailua erabil-tzen saiatuko gara. Katuak ez dau hasieran ondo hartuko tresna. Hori dela-eta, bere kalterako ez dela ulertzeko, denpora apur batean bere inguruan ipini-k dogu, zarata ohitzeko. Beti atzera egiten badau, pazientzia eduki beharko dogu.

Nire txakurrari kapar batzuk kendu deusadaz, eta bururen bat barruan geratu jakola uste dot. Hil egin leiteke? Jabier (Mallabia).

Ahoa barruan kateatuta geratzen bajako, tokiko infekzino bat bakarrik agertuko jako. Iodoagaz eta pomada antibiotikoagaz osatzen da gatx hori. Baina kapar batzuek, *Babesia* izeneko parasito bat eroaten dabe barruan, eta odola xurgatzean txakurrari sartuko deutso. Honegaz babesiosis izeneko gatx larria garatu leiteke; honeetxek dira sintomak: kalentura, ahultasuna, gose falta eta txiza cognacaren kolorekoa izatea.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org



Alberto Cimarro
Etorbide Albaitari klinika



IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna
edozein lan mota
egiteko prest,
edozein ordutegitan.
Esperentzia la
zerbitzari bez
umeein...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde
zaharrekotxe bat
alokagai. Guztiz
barriztatuta dago
eta hiru gela d
750 euro...

SALDU

Fun roller autoka-
rabana salgai.
2003 urtekoa. 54 km.
Motorra Fiat 2.8 JTD
127 zaldi. 24.
euro...

HARTU

Neska euskalduna
behar dogu 10 urte-
ko neska bati klase
partikularrak emateko
(ingeles
beste irakasg
batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen
dut Gasteiztik
Otxandiora joateko,
astelehenetik ostegunera.
09:30
aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak.
Hilabete bateko
kuma oparitzen
dut. Arra da.
Oso polita.
...

e-mail: anboto@anboto.org
Tel.: 94 681 65 58

IRAGARKIAK

LANA

-Eskaerak

-Eskaintzak

ETXEBIZITZAK

-Salgai

-Errentan eman

-Errentan hartu

-Pisua konpartitu

IRAKASKUNTZA

-Klaseak hartu

-Klaseak eman

MOTORRA

-Salgai

-Erosi

LOKALAK

-Errentan eman

-Errentan hartu

ANIMALIAK




-Salgai

-Erosi

BESTEAK

-Berba egin

-Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK

(partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Durango. Etxebizitza salgai erdigu-nean. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta ganbara. 80 m2. 12 urte. Tel.: 656 711 625 edo 659 768 037

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

Mallabian. Baserrira salgai 20.000 metroko lur zatiarekin. Oso toki polita. Tel.: 655 702 647.

Berriz. Pisua salgai erdigunean. 3 logela. 70 m2. Orainsu erreformatua. Tel.: 653 709 695

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Etxebizitza alokagai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trastelekua. Tel.: 657 793 993

Elorrio. Lokal bat alokatzen da etxebizitza izateko. 150 m2. Nahiko merke. Tel.: 688 632 078

Abadiño. Pisua alokatzen da Muntzaratzen. Jantzia, bi logela, bi komun eta garajea. Eraiki berria. Tel.: 687 579 705

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Pisu bila nabil. Jantzita edo erdi jantzia. Berogailuarekin. Tel.: 94 658 21 91.

Abadiño. Pisua alokatuko nuke Zelaian. Tel.: 699 295 914

Durango. Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil. Tel.: 605 749 443

KONPARTITU

Durango. Etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. Alde zahar-rean. Lehenbailehen. Tel.: 656 771 662

Etxea konpartitzen dut. Logela bat errentan. Tel.: 657 700 321 (Roman).

Zaldibar. Pisukide gazte baten bila nabil pisua konpartitzeko. Tel.: 685 724 619

MOTORRA SALGAI

Opel Vectra 1.8 16v salgai. Oso ondo zaindua. Airbagekin, irratiaekin, itxiera bateratuarekin... garajea gordea. Tel.: 619 187 799 (Jon)

Mazda 6 Diesel salgai. Familiarra. 136 cv. Gehigarriekin. 6 urtekoa. Oso aukera ona. Prezioa negoziatzeko prest. Tel.: 636 237 730

Quad-a salgai. Kawasaki 400 KFX. Gutxi erabilitakoa. Gehigarri askorekin. Aurrealde eta atzealdeak zabalera emanda ditu. Bi urte eta erdikoa. Tel.: 649 402 518

BMW 318 IT salgai. 98. urtekoa. Gasolinakoa. 143 zaldi. Pack M. 171.000 Km. 4.500 euro, negoziagarria. Tel.: 662 040 493

Opel Astra 150c. Diesel salgai. Familiarra. Gehigarri guztiekin. 2005ekoa. Egoera oso onean. Prezioa negoziagarria. Tel.: 650 874 594

LOKALAK

SALGAI

Elorrio. Pabilioi bi salgai ditut. Bata 630 m2-koa eta bestea 360 m2-koa. Tel.: 657 793 993

ERRENTAN EMAN

Durango. Musika taldeentzako lonja bat alokagai. Insonorizatuta. Gela bi ditu. Tel.: 615 750 039

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

ERRENTAN HARTU

Abadiño. Garajea alokatu nahi dut Muntzaratz inguruan. Tel.: 691 731 075

IRAKASKUNTZA

EMAN

Magisteritza ikasitako neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Esperientzia daukat. Tel.: 615 735 385

Berriz. Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest (LH,DBH). Euskara eta ingeles maila ona. Tel.: 626 113 779

4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Tel.: 635 746 176

Neska euskalduna arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Ingeles maila ona. Tel.: 615 708 238

HARTU

Bakarkako ingeles klase partikularrak jaso nahi ditut. Tel.: 690 776 431

ANIMALIAK

SALGAI

Astakumeak salgai. Tel.: 676 107 469

Txakurra salgai. Euskal artzai arraza colliarekin gurutzatua. Ahuntz eta ardiekin lan egiten daki. Urtebetekoa. Tel.: 94 621 82 57

Akerra salgai. Azpizuri arrazakoa. 3 urte ditu eta adar gabekoa da. Tel.: 94 621 82 57

BESTEAK

SALGAI

Play Station 3 salgai. 80 GB. Ia erabili barik. Jokoak eta mandoak oparitzen ditut. 225 euro. Tel.: 606 307 439

LANA

ESKAERAK

Garai. Umeak zaintzeko pertsona bat behar da. Astelehenetik ostiralera arte, egun osoan. Kotxea beharrezkoa da. Tel.: 618 822 048

Neska gazte euskalduna behar da asteburuetan tabernan lan egiteko. Tel.: 94 673 15 51

Berriz. Umea zaintzeko pertsona behar da. Tel.: 619 626 670

Ileapaintzailea behar da egun erdiz lan egiteko, arratsaldez. Tel.: 94 682 68 83

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenurako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruen informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du euskaraz lan egiteko. Derrigorra da Kazetaritza lizentziatua izatea, EGA izatea, Quarkxpress eta Photoshop programak menderatzea eta Durangaldean bizitzea. 8 orduko lanaldia, 2009ko urrian hasi eta 2010eko iraila arteko kontratuarekin. Erreferentzia: 6.555. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINTZAK

26 urteko neska euskalduna astean zehar goizetan lan egiteko prest, umeak zaintzen edo antzeko zerbaite-tan. Tel.: 607 340 659

Neska euskalduna, portalak eta tabernak (gauez) garbitzeko prest. Tel.: 664 146 904

Bertako neska eskaintzen da goiz zein arratsaldez umeak eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia askorekin. Tel.: 688 676 588 / 94 658 33 32

Neska euskalduna ume txikiren bat zaindu, euskara klase partikularrak eman edo mintzamina lantzeko eskaintzen da. Tel.: 686 809 628

Neska euskalduna goizetan, 10:00etara arte, etxeko lanak egin zein umeak eskolara eramateko prest. Tel.: 615 726 206

Elorrio. Haur Hezkuntzako teknikaria arratsaldetan umeak zaintzeko prest, astelehenetik ostiralera. Neska euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 688 640 604 (Lohitzune)

Neska euskalduna klase partikularrak eman zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat eta Haur Hezkuntzako titulua ere bai. Tel.: 680 274 327

Esperientziadun neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu Berrizen, Haur Hezkuntza, DBH zein Batxilergoko ikasleentzako. Goizez umeak ikastolara eramateko ere prest. Tel.: 605 763 942

Durangoko jaietan tabernan lan egingo nuke gauez, barran. Tel.: 676 985 501

Esperientziadun emakume euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 680 509 532

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Elorrio. Etxebizitza salgai herri barruan. Igogailua, bi logela, bi komun, sukalde jantzia eta trastelekua. Tel.: 657 793 993

Abadiño. Etxebizitza salgai Zelaian. Sukaldea, bi logela, egongela, despentsa, balkoia eta bi komun. 90 m2. 234.000 euro. Toki lasaian. Garajea aukeran. Tel.: 652 750 293

Berriz. Etxeko gela bi (altzariak) saltzen ditut.
Tel.: 606 325 811

Mendi bizikletarako balaztak salgai.
Formula 24k. Hidraulikoak. Estreinatu gabe. Adaptadoreak prezio barruan. 250 euro.
Tel.: 675 008 804
(Harkaitz)

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa.
Tel.: 699 295 914

Arkoizozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa.
Tel.: 699 295 914

Etxeko kanpaia salgai. Isla estilokoa. la-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa.
Tel.: 94 622 56 73

Karreratako bizikleta eta ziklo kroseko bizikleta salgai.
Tel.: 648 260 880 (Maite)

Erabilitako CDak salgai.
400 inguru dira. Txollo ona da, benetan
Tel.: 606 266 244

Bizikleta koadroa salgai. Berria da, Goka Knife modeloa.
Tel.: 686 651 382

Neopreno laburra salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S"~155cm.
Tel.: 658 738 734

EROSI

Bikiak paseatzeko aulkitxoa erosi gura dut.
Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut.
Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurilaritzan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik.
Tel.: 656 791 027

Athleticen bazkide txartela alokagai denboraldi osorako.
Tel.: 679 058 167

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar.
Tel.: 636 847 262

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zerbaki honetara.
Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala.
Tel.: 618 608 908

Eskuko desbrozadorekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut.
Tel.: 619 552 202

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzea nahi badozu deitu hurrengo zerbaki honetara:
Tel.: 605 744 945

INMOBILIARIAK




AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak salgai.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen. Salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Errentenbu: Adosatuak eraikitzen. Salgai.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta)
- Kiriakiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Herriko Gudari kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantoki, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparraguirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, sukaldea, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Sasikoa: Halla, egongela, sukalde-jantokia jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara. Jantzia.
- Tronperri kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Jantzia.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Abadiño: Halla, egongela-jangela, sukaldea jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 garaje. Jantzia.



Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+BEZ
 - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+BEZ
 - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+BEZ
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa. Ganbararekin.
- Ezkurti: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Komentu kalea: 90 m2. 4 logela. Ganbara. Terraza.
- Juan de Itzizar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Herriko Gudari kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. 42 m2-ko terraza.
- Askatasun Etorbidea: Erdi berria. 92 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zabale: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Murueta Torre (V. Bizkaia): 88 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Iparraguirre: 80 m2. 3 logela. Guztiz berriztatua. Altuera ona.
- Astarloa: 75 m2. 3 logela. Berriztatua. Igogailuarekin.
- Aramotz: 70 m2. 3 logela. Berriztatua. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Laubideta: 70 m2. 2 logela. Garaje itxia. Beheko solairua lur sailarekin.
- Oñituri – Astatasun Etorbidea: Erdi berria. 2 logela. Ganbara.
- Asbiki: 74 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta ganbara. Balkoi handia.
- Landako etorbidea: 80 m2. 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zeharkalea: 68 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
- Murueta Torre (V. Bizkaia): Erdi berria. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- Mikeldi: 50 m2. Logela bakarra. Garajea eta ganbara. Erdi berria.

ZALDIBAR: Lursaila. Eraikitzeo aukerarekin. **BERRIZ, ZALDIBAR, ELORRIO, ABADIÑO:** Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela. **DURANGALDEA** • Txaleetak eta baserriak zonalde ezberdinetan. Pabilioiak, lokalak, garajeak... Aukera zabala.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4. 48200 Durango
Tel.: 94 681 40 40

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin. Guztiz jantziak. 138.000 €-tik aurrera.
- Ermodo kalean: Eraikuntza berria. 105 m2. Guztiz kanpora ematen du. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabiran: Promozio berria. Luxuzko etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun.
- Astxiki kalean: Estreinatzeko. 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- Pinondon (Tabira): 3 logela eta 3 komun. 2 terraza
- Atxondo: Baserria. 210.000 €.
- San Fausto: 2. solairua. 143.000 €.
- Durango: Bizitzaren sartzeko moduan. 2 logela eta egongela. 156.300 €.
- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000€.
- Urkiagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 179.000 €.
- Aramotz: 3 logela, egongela. 202.500 €.
- Berriz: Guztiz berriztuta. 154.500 €.
- Tabira / Arriluzea: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
- Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
- Plateruen Plaza: Berria. Atikoa. Terraza. 2 logela.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzaren sartzeko moduan.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.
- Antso Eztegi: 3 logela eta komuna. Aukera ona.
- Murueta Torren: 90 m2. Berria. 3 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Aukera ona.
- Durango: Txaleta. Estreinatzeko. Lorategiarekin. IURRETA
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 €.
- Bidebarrieta: 70 m2. 3 logela. Terraza. Igogailua.
- Bixente Kapanaga: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Orozketa: Baserria. Guztiz berria. 3 solairu.

ABADIÑO

- Feria Leku: 90 m2. 3 logela eta egongela.
- Zeletabe: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Matiena: 3 logela eta egongela. 180.300 €.
- Matiena: Laubideta kalea. Apartamentua. Garaje aeta trasteleku handia.
- Abadiño: Txaleta. Bifamiliarra. Lursailarekin.

PABILIOIAK SALGAI

- Iurreta: Mallabierna. 400 m2. Berria.
- Matiena: Berria. 400 m2. 10 m2-ko altuera. (Eroski ondoan).
- Matiena: 350 m2. Instalazio guztiek. 1.150 €.
- Abadiño: 1250 m2. Estreinatzeko. Alokairuan edo salgai.

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN, LOKAL KOMERTZIALAK, GARAJEAK, KONTSULTATU...



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ed. DURANGO
TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzita. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 hilero.
- Askatasun Etorbidea: Eraiki berriak. Logela bakar, 2 eta 3koak.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudari kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisol: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Ganbara, garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. la berria. Estreinatzeko.

ATXONDO

- 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garajea. Berria estreinatzeko. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreinatzeko. Informazio pertsonalizatua.

ELORRIO

- Jaral de Bedoya. 240 m2-ko txaleta eta 200 m2-ko lorategia. Garaje bikoitza, txokoa, sukalde eta egongela handiak, 4 komun, 4 logela bikoitz eta terraza. Banaketa. Sotoa eta hiru solairu.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

		Desafioak, aupadak	▼	Lukete	▼	Lursail
		Txerria		Dago		
			➤		▼	
		Gizon izena	➤			
		Hazkuntza				
Atorrak	▼	Holmioa	➤ ▼	Errep., txori mota	➤	
Albaniako		* Irudiko altzaria		Kasik		
➤		▼		▼		
Buru-hausteak	➤					Pl., metal mota
Kolpea						
➤				Erbioa	➤	▼
				Gizon izena		
Naute	➤			▼		
Lepo, sama						
➤				Dagoen	➤	
				Gibel		
Eraso	➤		▼		1	➤
Eredu					Emakume izena	
➤				▼		
Atxl, otxl	➤		Gona	➤		
Ukazioak			Fosforoa			
➤			▼			

SUDOKU >

1			4	6			1
1	6	5	7				
		9					8
			8	5			3
			7	6	8		
	9			2	6		
2	4	7					3
3							
				7	5		2

2	6	7		2		8	
2							9
		5	1				3
	2	4					
					7		1
9			3	6	8		
8	4			3			
			5				
		8		4	9	1	

9	1	6	4	2	8	7	5	3
8	3	4	6	5	7	2	9	1
2	7	5	1	9	6	4	8	3
4	2	8	7	3	1	5	6	9
1	5	7	4	2	6	9	8	3
6	9	3	1	5	8	4	2	7
3	8	2	7	6	1	5	6	4
7	6	9	7	1	5	6	4	2
2	7	6	9	7	1	5	6	4
5	2	8	1	4	3	6	9	7

9	1	6	4	2	8	7	5	3
8	3	4	6	5	7	2	9	1
2	7	5	1	9	6	4	8	3
4	2	8	7	3	1	5	6	9
1	5	7	4	2	6	9	8	3
6	9	3	1	5	8	4	2	7
3	8	2	7	6	1	5	6	4
7	6	9	7	1	5	6	4	2
2	7	6	9	7	1	5	6	4
5	2	8	1	4	3	6	9	7

K	V	N	E	P	A	K	U
V	I	V	Z	•	I	V	•
O	P	I	T	E	K	A	R
I	•	R	A	R	D	O	•
N	E	•	N	U	N	D	I
E	T	A	K	U	V	N	•
R	•	A	K	A	S	K	E
•	K	A	K	Z	E	K	•
R	V	A	N	I	B	A	L
O	K	•	O	H	•	A	•
L	U	A	R	•			
A	D	E	U	R	•		
•	L	•	E	•			

HOROSKOPOA >

- 

Aries
marxoak 21 - apirilak 20

Azkenaldian barneratu dozuzen mania horreek kentzen hasi beharko zeunke. Jack Nicholsonen antza hartzen zabilz...
- 

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Gorputz eskasagaz zabilz. Lotu zaitez egun batzuetarako etxean, lanekoeri kutsatu baino lehenago!
- 

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Ez dakizula telefono zenbaki hori norena den? Erantzun egiozu atoa, akaso suerte ona izango dozu-eta!
- 

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Lanean gogaituta bazabilz, ikastaro edo antzekoren bat egitea pentsatu beharko zeunke. Hizkuntza bat, esaterako, ez dator txarto inoiz.
- 

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Lurrean arazoak, eta zerura begiratzen dozu. Izarrek lagunduko ete deutsue? Badaezpada ez altxatu hankak larregi...
- 

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Itzi 'Gran Hermano' ikusteari, eta irakurri gehiago ANBOTO! Durangaldeko errealitatea fikzinoa baino erakargarriagoa da, lagun!
- 

Libra
irailak 24 - urriak 23

Gure alboan ez dagoenez, orduan hain zuzen be, ulertzen dogu zer garrantzitsuak diren pertsona jakin batzuk.
- 

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Maitasunak, ogia beharrenean, gauza onak eta txarrak ekartzen ditu besapean. Bietarako prest egon, badaezpada.
- 

Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Bizitza honetan ezin da beti gura den guztia eskuratu. Aukeratzen jakin behar da, eta zeuri be ordua heldu jatzu...
- 

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Arropak eskegita daukazuz, baina agian haizeak eroango deutsuz. Kontuz udazkeneko eguraldiagaz!
- 

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Egunen zehar loak hartzen bazaitu, ez bota errua beharrari. Hemendik aurrera, sartu zaitez ohean lehenago, festazale halakoa!
- 

Piscis
otsailak 19 - marxoak 20

Sasoi ona da honakoa gaztainak batzeko. Egizu irteera bat, eta horrela janaria lortzeaz aparte kirol apur bat be egingo dozu!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Zorionak gure txikiari, **Ingeri**, azaroaren 4an urtetxo bat egin dozulako, aita eta amaren partez.



Zorionak **Oier**, zure familiaren partez. Mosu asko, eta hainbeste estimetan zaitueen lagunaren partez, zorionak.



Jon Ander Dávila azaroaren 3an 16 urte egin ditu. Ia noiz ordaintzen deuskuzun kalimotxo bat. Etxeko denon partez, zorionak!



Zorionak **Uxue Esturo**, azaroaren 4an hiru urte egin dozuzelako. Zorionak zuri be, **Beñat Belar**, azaroaren 9an 17 urte egingo dozuz-eta. Mosu bana, etxeko partez, eta ondo pasatu daizuela urtebetetze egunean.



Josemi eta **Karmele** joan zen zapatuan Axpen ezkondu ziren. Osteko ospakizuna Mendigoikoan egin eben. Orain, Cancunera joan dira eztei-bidaian. Zorionak, bikote!



Bidart Aldekoa-Otalora Salterain. Urriaren 30ean, argazkiko morrozko hau jaio zen. Zorionak, aita eta ama partez.



Mari Tere Uribelarrea atzo, azaroaren 5ean, urteak egin zituen. Zorionak, eguerdiko kafeko lagun eta, bereziki, zure iloba Uxueren partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta
martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe gida



Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe
gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



Olondo Jatetxea

Mendiola auzoa, 18
Tel.: 94 681 42 64

Eguneko menua. Bokadilloak.
Taldeentzako menuak. Razioak.
Plater konbinatuak. Asteburuetan
oilasko errea baita eramateko
(erreserbatu). Egunero zabalik.

AKUILUAN

Jone Guenetxea

LAUHORTZA



Endika Blanco
Ikaslea

Italiar beltzarana

Ezkontza behartua izan zen ene ezkontza. Ez zen maitasunak bultzaturiko ezkontza izan ene ezkontza; ez berak eta ez nik, ez baikenuen elkarren bihotzen berri. Baina zergatik ezkondu? Ez zen urreak bultzaturiko ezkontza izan ene ezkontza; ez berak eta ez nik, ez baikenuen ez pinudieztaganadurik ere. Baina, egun batetik bestera, gure etxeko bosgarren kide bilakatu zuten.

Koloretako ehunkalore gainean zituen soineko gorrixka itsusi batek, kurbarik gabeko bere gorputza estaltzen zuelarik iritsi zen etxera. Azala nire kopeta baino ilunagoa zuen beltzaran hura italiarra zela esan zidan anaiak; elizkoienek berriz, infernutik zetorrela zioten. San Fausto auzoko Basilio-txiki handiaren alarguna omen zen. Nikez nuen baterre begiko, eta nahiago nuen baloi bati ostikoka ibili, berarekin egotea baino. Astea behin laztantzen nuen, asko jota, estimu handia nion Abadiñoko lagun batek animaturik.

Urteak aurrera joan ahal, ordea, orkatilak bihurritzeaz asperturik eta laztanak eman zein jaso beharrik bultzaturik, gure arteko harreman hotza berotzen joan da: etxera estresaturik ailegatuz gero, laztan bat nahikoa da, berak barru-barrutik kanporatzen duen ahots leun eta goxo bat xuxurlatzeko. Etxetik irtetzeko pizgarri baten beharra badut, aldiz, boz alai batez erantzuten dit, barru-barrutik.

Soinu-txikiarekin izandako bizipen honek, pertsona orori, baserri, arropa eta azalaz harago begitu eta zenbaiten barruko altxor hori estimatzen erakutsi dit.

"Belaunaldi barriak alpinismoa ulertzeko beste modu bat dauka"

Mendi Astean hainbat berbaldi antolatzen dihardu Erdellak; horreen artean, Jonatan Larrañagarena

Alpinismoa bizibide dau Jonatan Larrañagak. Mendiko gida legez lan egiteko Benasquen jarria dauka kanpamendu basea. Eskalada arloan lorpen handiak egin dituen getxoztar honek alpinismoa ulertzeko daukan moduaren barri emongo deusku astelehenean Elorrioko Iturri kultur etxean.

Atxarten hasi zinen eskalatzen. Eskola oso alpinoa da. Euskal Herrian alpinismoan hasteko baldintza onak daukaz. Euskaldun gehienok hantxe hasi gara eskalatzen.

Ondoren, Pirinioetara eta Picos de Europa jo ohi dogu.

Orain Benasquen bizi zara. Mendiko gida izateko ikastera etorri nintzen, eta hamar urte daroadaz hemen. Lan honetan menditik gertu egon behar da.

Gidok noiz daukazue lan gehien? Uda sasoiari lan handia izaten dogu. Chamonix eta Zermaten hilabete bi egoten naz. Neguan eskiatzen eta izotzean eskalatzen dihardut. Lan honen alde politena

egun bakotxean gauza bat egiten ibiltzea da.

Gidek abentura ugari biziko dozue mendian. Mendian asko gabilzenok denarik ikusten dogu. Udan jente asko dabil mendian. Gertatu leitekenerako ezbehar gitxi pasatzen da. Alpeetan glaziareak dagoz, eta, inoiz, nire taldekoak ez direnak erreskatatu behar izan ditut.

Marka batzuen aholkularia bez bazara.

Estatu mailako marka batzuk babesle ditut. Materiala merkaturatu aurretik emoten deuste hobekuntzarik egin leitekeen jakiteko. Luxu bat da, material barria ezagutu zeinzelako eta gero eskalatzera koan erabiliko dozuna delako.

Izotzean eskalatzen trebea zara.

Izotzean nabarmendu naz gehien, seigarren mailako hainbat ur-jauzi eskalatu dodazelako. Urtero izotza mugitu egiten da. Urte baten eskalatu dozun ur-jauzia hurrengoan gradu bat gehiago edo gitxiagokoa izan daiteke. Elementu oso efimeroa dela deritzot.

Mundu osoan zehar ibili zara eskalatzen.

Leku bakotxak bere ezaugarriak daukaz. Herrialde bakoitxak bere jentea eta kultura

daukaz. Patagonian Cerro Torre edo Fitz Roy, edo zazpimilako bat Kumbu haranean ezin leiteke alderatu. Himalayan logistika gehiago behar da. Eskalatzeko zailtasun aldetik Chamonixekin gelditzen naz. Horma teknikoen artean, Cerro Torregaz.

Igoera gogorrena?

Gogoratzen dot Droisen iparraldean 20 gradu zero azpitik 16 orduan egon ginela, eta handik erreskatatu behar izan ginduezela. Atzamarrak izoztu jatazen.

Igoera politena?

Inor igo ez den bideak jarraitzea. Indian hilabete bitan inor ikusi barik egon ginen, ezezaguna den munduko txoko batean.

Elorri zeri buruz berba egingo dozu?

Berbaldiaren izenburua Bertikalitate da. Lantzen dogun eskalada mota azalduko dot. Komertzialenazortzimilakoak dira; horri buruz berba egiten da. Beste batzuek alpinismo barrizaleagoa jorratzen dogu. Zertan gabilzen ezagutzera emongo dot.

Alpinismo horrek zer ezaugarri daukaz?

Materialak asko garatu dira, eta alpinisten teknika be bai. Jenteak modalitate guztiak lantzen ditu; lehen espezializatu egiten ziren.

Alpinista onenaren saria jaso zenuen orain bi urte.

Federazioak urtero sariak banatzen ditu, eta aurretik egindako ibilbideagatik saria emon eusten. Eskertzen dodan arren, mendian ez naz sariak emotearen aldekoa. Epaimahaietan dagozenek ez dakie baloratzen dagoen ekimenak. Gatxa da etxean dagoen epaimahai batek baloratzea.



Jonatan Larrañaga •

Mendiko gida

Getxoztarra

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

LA TOSTADORA

CAFES **LA TOSTADORA**

Andramari kalea (DURANGO) - Tlf.: 946 81 48 36